

Zerurako bidea (ip.)

# ZERURAKO BIDEA.

11'garrena.




Neri jarraitzen didana, illunpetan ez dabil.

*Juan, VIII, 12.*

14--29663 ATV-12.160
R. 16912

# ZERURAKO BIDEA

KARDABERAZ Abak
eta ANTIA jaunak

EGINDAKO GAYETATIK ATEREA.

DAUZKA

Goiz eta gabeko otoitzak.—Meza, Errosario Deuna.—Pekatuen gogoratze ta aitortzea.—Jauna-artzea,
:-: Bezperak eta Kalbarioak. :-:

Lengo oyez gañera erantzi zaizka

Pádua'tar Antonio Santu, Erroke Santu, Karmen'go Ama Birjin eta Erramon Santu jayogabearen Bederatziurrenak.—Bost aldareen eta Jesukristo'ri Ikustaldiak eta
:-: :-: beste otoitz asko. :-: :-:

GOTZAI JAUNAREN BAIMENA BA-DU.

TOLOSA'n:
E. Lopez'enean—1923'garren urtean.

Liburu oni geyagotu zayona Egillearena da.



FUNDACION SANCHO E
VITORIA

## Goizerako Otoitza.

*Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

Jesus nere Jaungoikoa, zure odol ongilleagaitik, zure Ama txit gloritsu Birjiña Mariaren bitartekotasunagatik, eta Santu guztien, nere Aingeru zaitzallearen eta nere izeneko santuenagatik, es-

katzen dizut indazula laguntza zuri kalterik egin ez dizazudan, ez egun ontan, ez eta ere nere bizitzako guztietan. Zure kaltez ezer ez egiteko asmoa artzen det. Zu zeranagatik eta gauza guztiaz goitik maitatzen zaitudalako; eta zugatik eramateko bizitz ontan nere biotzan

eraman al nezakean guztia. Eskeintzen dizkitzut Jauna, nere egite, itz eta gogoak, eta nai det gauz onetan ibiltzea, txarretatik alde egitea, zuri jarraitu ta maitatzeko. Ala gerta dedilla, nere Jesus. Alaxen.

Otoitz-garayan ezkillak jotzean.

Jaunaren Aingeruak Maria'ri

berri ona eman zion:

Eta Espiritu Santuaren egitez aurdun arkitu zan.

*Agur Maria.*

Ona emen Jaunaren mirabea:

Egin bedi nigan zuk diozun bezela.

*Agur Maria.*

Jaungoikoaren Semea gizon egin zan:

Eta gure artean bizi izan zan.

*Agur Maria.*

### Otoitza.

Jauna, laguntza iguzu, aingeruak adierazirik Jesukristo'ren gizontzea ezagutu degunok, zure neke eta gurutzearen bidez betiko zerua iritxi dezagula. Jesukristo gure jaunaren izenean.

Alaxen.

### Irukoitz txit Santuari otoitza.

Bedeinkatua izan bedi Irukoitz

guztiz doatsua, Aita, Semia ta Espiritu Santua, iru persona banakoak eta egizko Jaungoiko bat: nere ibillerak zuzendu itzatzu, ta gaitz guzietatik zaindu, Ama Birjiñaren bitartekotasunaren bidez zerua iritxi dezadan. Ala izan bedi.

---

## Gaberako Otoitza.

Jesus, nere Jaungoiko maite, nik eskatzen dizut indazula laguntza, zure ontasunagatik, nere pekatuen egizko damu bat izan dezadan. Damu det, nere Jaungoikoa, gauza guztiak baño geyago maitatu bearrean zuri kalte egin di-

zudalako. Eskeintzen dizut zuzentzea, nere ustez barkatuko didazulako. Jauna, barka egidazu ba: eman egidazu indarra geyago iñoiz ere zure kaltez agertu etzaitzadan, eta bizi ta il nadin zure laguntzan, zure Ama Maria kutsu gaiztogabearen, Santu ta Aingeru guztien,

nere zaintzallea-
ren eta izenekoa-
ren bitartekotasu-
nagatik. Ala gerta
dedilla, nire Je-
sus. Alaxen.

Aingeru Zaintzalle Santuari
Otoitza.



Jauna, jakintasun aundiaz gure laguntzarako aingeruak ipiñi zinduan. Neri ipiñiak beti lagun-

du dagidan laguntza indazu. Jesukristo'ren irabazpenen izenez. Ala izan dedilla.

## Pekatuak ondo aitortzeko

Pekatuak aitortzeko gogoa Jaungoikoak ematean, esker aundi bat egiten dizu. Asmo ori zuk artzean zeregana, bereala zure biotzean sar-

tu bear dozu, ta bakartasun orretan gogoratu Sakramentu ontan pekatuetatik Jaungoikoagana biurtzeko bear dezula, lenengoz, beti gertu dagoan beraren laguntza; bigarrenez, pekatuak gogoratzeko beta; irugarrenez, gaitz guzien damu aundi bat Jaunari eskatu bear diozu,

eta zure gaizkeri guziak ondo gogoratzeko laguntza, esanaz ondorengo

OTOITZA.

Nere Jaungoiko guziz ona: nere gaitz guzietatik zugana biurtu nai det, baña orretarako nere pekatuen illuntasun ontan zure argi bear naiz. Mundu galduaren argi ta zuzenbide bakarra

Zu zera. Zure ontasun aundiagatik, arren, Jauna, nik bear dedan argia indazu: nere gogo illuneko bazterrak ondo ikusteko ta nere okerrak, nere animan diran bezela ezagutzeko. Betor bada zure laguntz oriez ondo ezagutu eta eskatzen detan damua nere gaizkeriak bear beze-

la aitortzeko. Jauna, ori nai det, eskatzen dizut, eta ala uste det irixtea Jesukristo zure Seme Jaunagandik. Alaxen.

### Ama Birjiñari ta Santuai Otoitza.

Zeruetako Erregin, Jainkoaren Ama txit santua ta Zugana negarrez datozen pekatari guzien maitasunezko Ama, gu-

rutzearen oñetan zure Semearekin nigatik igaro zinduen oñazeagatik, eskatzen dizut, artu nazazula zure laguntzaren azpian, beraren neke eta eramankizun santuaz aitortze ontan ni zuzentzeko. San Jose guziz doatsua, Jesus ta Mariarentzat bitartekorik maiteena, biakin egizu ne-

re pekatuen egizko damu bat iristeko zeruko Santu ta aingeru guztien laguntza eta zuk, nere Aingeru zaintzallea, eskatu egazazu nere oker guzien aitortzea ondo egin dezadan. Alaxen.

Pekatuen gogoratzea.

Irakurtzen dakitenak liburu askotan arkituko du

te gogoratze au nola egin bear dan. Irakurtzen ez dakiten euskaldunai, dakiten batek irakurri, ta ori errazago egiteko bidea nik eman nai diet.

Jainkoaren aginduetan, ez dakitenak zenbat bider pekatu egin duten, esan bear dute ONENBESTE BIDER GUTXI GORA BERA. Eta b. g. g. b. letra oek

ori esan nai dute.

### Lenengo agindua.

Bizi guztiko pekatuak billatu nai dituanak, ezaguera zuanetik asi bear du galdera bakoitzean.

Pekatu gogoratze ontan galde zure buruari: Jainkoaren lege ta ikasbidea, edo jakin bear ziran gauzak, beren gara-

yan ikasi zinduan ala ez: ta zure ume edo mendekoai erakutsi ziñozkan ala ez.

Sinispen, Itxedopen ta Maitasunezko egipenak egin dituzun.

Sinispeneko gauzen kaltez ezer sinistu dezun, ezaguturik Sinispenaren kaltez zala; oartu ezkero orrelako asmo edo za-

lantzai lekurik eman diozun. Baña tentazioak naieztezula burura etortzea ezta zalantza, eta ez ere pekatu, kentzeko alegiña zuk egiten ba-dezu.

Amets gauzetan, sorginkeri edo orrelakotan sinistu dezun, edo orrelakorik egin edo eragin dezun.

Jaunaren mai-

tetasunaz ustea galdu dezun.

Jaungoikoaren, Ama Birjiñaren edo Santuen kaltez itz gaiztorik esan dezun.

Aitortze edo Jaunartze gaiztorik egin dezun pekatuak berariz edo lotsaz edo bestela utziaz, zuzentzeko asmo gabe ta zenbat aitortze gaizto urtean izan diran.

Penitentziak bete gabe utzi dituzun ta zenbat b. g. g. b.

Urteko aitortze edo Pazkoetako Jaun-artzea utzi dezun. Jakin bear da aitortze gaizto. ta Jaun artze gaizki egiñaz Elizaren aginduak betetzen ez dirala.

Ezkontzako Sakramenturik, edo besterik, pekatu

mortalean zaudela artu dezun.

Jainkoari edo santuai egindako eskeintzik bete gabe zu bide zerala utzi dezun.

Besteen egite onaz edo orietan dabiltzanaz parrik egin dezun.

FUNDACION SANCHO EL SABIO · VITORIA

Bigarren agindua.

Gezurraren gañean juramentu egin dezun: zenbat

b. g. g. b. Ezer ajola ezagatik juramentua gezurrarekin dan guzian, beti da pekatu mortala.

Zalantzan, edo gauza jakin gabe egitzat ziñ-egin dezun.

Arretik gabe, naiz gezur naiz egi dala ziñ-egiteko oiturik izan dezun.

Gaitz aundiren bat iñori egiteko,

gogoa artu dezun.

Pekaturen bat ezegiteko edo gauz onen bat egiteko, juramentu egin, ta ausi dezun, zenbat b. g. g. b.

Pekatu mortalen bat egin duela bere burua goratzea edo egingo duela esatea, naiz egi, naiz gezur dala, beti da pekatu mortala orren gañean juramentu

egitea, ta esana egitea gero, beste pekatu mortal bat da.

Auzira joan ezkero gezurrezko juramenturik egin dezun, edo besteri eragin diozun: ta iñoren kaltean izan ote zan.

Juramentuak berez nola diran, ta zer itzez juramentu diran edo ez diran, konpesore

jakintsuak bakoitzari ondoena esango dio.

Juramentutzat itzen batzuek artu edo iduki badituzu ta gezurraz esan, edo zalantzan, orrela aitortu bear dituzu, ta geroko jakin ondo juramentu noiz diran.

### Irugarren agindua.

Bearrik gabe,

igande edo jayetan lan egin edo eragin badezu, beti da pekatu. Noiz dan beniala ala mortala, konpesoreak esango dizu.

Jai egunetan zure zabarkeriz Meza utzi dezun, edo besteri entzutea eragotzi diozun.

Batek uste bazuen Meza izango zala ta alegiña

egin, ez arkitzea ezta pekatu.

Meza galtzeko zorian zure zabarkeriz egon zeran.

(Bidezkoai, aur txikidunai, ta eriakin daudenai zer egin bear duten, konpesoreak esango die.)

Mezaren puska aundian izketan, batera edo bestera begira egon zeran edo orrela besteri

egin diozun.

Garizumanan arraiutz edo esne-gaugazik, Bulda artu gabe, jan dezun; artzeko asmoa ezta asko.

Ogei ta bat urte izan ezkero, Elizak agindutako barau-egunak egin dituzun.

Laugarren agindua.

Ontan umeak gurasoai zor dioz-

kate *maitetasuna ta begirapena*. Begira ezazu bada ondo, oyen kaltez gauza aunditan utz egin dezun: begira ondo zure egitietan, itzetan ta beste gauzetan nola, zertan eta zenbat b. g. g. b. uts egin dezun Jainkoaren lege onen kaltez.

(Gurasoen izenaz emen aditzen dira gurasoen ordeko

guziak, eta nagusi-etxekoandreak)

Orrelakoen testamentu eta aginduak zure gain daudela, betegabe utzi dituzun.

Emen gurasoak, orien ordeko, eta nagusi-etxekoandreak begiratuko dute beren egin bear aundia nola erantzun dien; umeak edo beren mendekoak nola

azi dituzten bai oitura onetan ta bai Jaunaren bildurrean: gaitzerako biderik edo erakuste gaiztorik eman dien. Edo beren garayan bizibidea ematen dien edo ori ondo ta pekatu gabe artzeko bidean lagundu dien.

Jokuan, sagardotegian edo gaiztakerietan etxera-

ko bear zana galdu duen edo etxean biziera gaiztoa ematen duen.

### Bosgarren agindua.

Zure buruari edo besteri eriotz edo gaitz aundirik nai izan diozun: edo iñor il dezun, zauritu, makilkadarik eman edo beste gaitzik egin edo nai izan, zenbat bider.

Iñor itzez bere arpegian gaizki erabilli dezun.

Aserre-aldirik billatu dezun edo orrelakoetan arkitu zeran.

Iñoren gaitz aundiaz zure biotzean atsegin artu dezun edo iñoren onaz miñik izan dezun.

Agur egiterik edo itzik aserrez iñori ukatu diozun. Gorrotorik bio-

tzean iñori izan diozun.

Jan edanean geyegi zure osasun edo buruaren kaltean, ezaguturik, sartu zeran ta zenbat bider.

### Seigarren eta bederatzigarren aginduetan.

Emen begiratu bear dezu, zer pekatu egin dituzun, asmoz, itzez ta egitez eta norekin egiñak izan diran.

Gogorapen loyetan, egiteko asmorik ez bazenduen ere, atsegin artu dezun.

Itz lasairik esan dezun, atsegin artuaz edo besteri arrerazotzen diozula.

Kanta zikiñik aditu edo kantatu, liburu edo paper gaiztorik irakurri dezun.

Zure buruarekin

pekatu itxusirik, anima ta gorputza loituaz egin dezun.

Ea itzez edo egitez pekatu loyera iñor mugierazo dezun, agertuaz pekatu eragin nai ziñion laguna nolakoa zan.

Kristau bildurti ta lotsatia: Jakin ezazu seigarren aginduaren kaltezko pekatuak itsusien eta ikara-

garrienak dirala; beragatik egin bear dezu beti zure anima aldan garbiena aragizko pekatuen kutsurik gabe edukitzeko alegin guzia.

Jakin ezazu konpesorea eztala zure pekatuaz arrituko; badira oriek baño kezka geiago ematen duten pekatuak; zuri oiek laister barkatuko

zaizkitzu penitentziaren indarrez. Egi oek, guzien biotzetan ondo josirik baleude! ainbeste anima galduko ez lirake!

Baldin bada pekatu lokatz oetan sartu bazera etzaitezela ikaratu.

Zuk zure animaren kaltean biziera txarra, ta pekatuen galbideak ondo ezagutu, ta

gogo osoaz ta e-
gizko gorrotoaz,
bideorretatik iges
egiteko asmo era-
gillea badakartzu,
pekatu guziak, ta
orien arantzak on-
do ta sustrayeta-
tik aterako dira:
zuk konpesoreari
esan edo onek zuri
galdetu ta lagun-
duaz: ta onela zu-
re anima aitorpen
oso baten bidez
bein betiko Jau-

naren pake gozo ta maitetasun santuan geldituko da: ta aurrerakoan lengo pekatu edo gauzik ez geyago nastu eta erabilli.

### Zazpigarren eta amargarren aginduetan.

Iñori ezer ostu edo kendu diozun.

Iñori bere gauzetan kalte andirik egin diozun.

Ezer ostutzen edo kalte egiten

iñori lagundu diozun: ezer estali edo orrelakorik agindu dezun: nola ta zenbat bider.

Bide gaiztoetatik asmo gaiztorako iñoren ondasuniknai izan dezun: asmo ona danean ondasunaknai izatea ezta pekatu larria.

Gaiztakeririk jokuetan, artu-emanetan, neurri edo

pisuetan egin dezun, zer kalte ta nola egin dezun, edo gaizki eramanda, eta zenbat bider.

Dakizula iñori berea kendu, edo zor diozula, biurtu egin gabe egon zeran edo konpesoreak aginduta egin bear dezuna, nagitasunez bete gabe, al dezula, egon zeran, orobat bes-

te zorrak ordaindugabe orrela utzi dituzun.

Artzekodunak, langilleak, mirabeak, morroyak berena artzeko ordaindu nai ezik, al dezula gaizki erabilli dituzun, ta ontan zer kalte egin diezun.

Seme, alaba ta umeak beren gurasoai edo morroyak beren na-

gusiai ezer ostu dien, askotan, puskaka edo nola ta zenbat bider.

Erlijioan sartzen iñori eragotzi diozun; edo esaera gaiztoz atzeratu, edo orrela eragotzi diozun.

### Zortzigarren agindua.

Iñoren kalte aundian gezurrik esan dezun, ta nola. Gauza jakin, edo

agiria eztala, iñoren pekaturik agertu dezun, edo gauza aztunetan maxiatu dezun.

Bakoitzari bere izen ona gaizki kendu edo galduerazo diozun, ta bear bezela biurtu diozun, ala ez.

Ixilleko gauzik esan, edo bear eztan gauzik euki dezun.

Asmo gaiztorik,

ezeri ez dagokiola, iñorentzat egin dezun.

Azkenik, bakoitzak bere bizierako bearrak jakin ondo ta begiratu edo ikusi bear ditu; zertan utsegin duan jakiteko ta obeto zuzentzeko.

Beste oker asko emen eztaudenak, jakiñak dira, edo gutxitan oi diranak, ta berariaz

utzi ditut: alde ontatik on da, kezka dezun guzian pekatutik azkatzeko aitorle oitu, jakintsu bati galdetzea, au edo ori pekatu al dan, eta zer egin bear dan.

Onela zure pekatuen gogoratzea alegiñaz igaro ta bereala Jainkoagana biurtu zaitez: egin dizunagatik eskerrak e-

maizkatzu, ta zure pekatu ta berari egindako kalte guzien barkapena eskatu, esanaz biotzetik urrengo

Pekatuen gogoratze-ondorengo Otoitza.

---

Nere Jainko, argi guzien Aita ta esker on guzien emallea! Ezagutzen det, zure laguntzaz dala, nik egin aldezakedan on guzia. Zuk ne-

re anima zeruratzeko asmo au eman didazu. Zuk nere pekatuak billatzeko argia, ta arkitzeko laguntza. Zuri, bakarrik bada, Jauna, zorion guztia: Zuri, nere biotzeko esker on ta azkengabeak. Alaxen.

Santu ta Aingeru guziak, ta are milla bider obeto Ama Birjiñak eta

zure Seme Jesus'ek goratu zaitzatela orain ta beti niri egin didazun esker aundi onegatik. Alaxen.

### Bark: pena eskatzeko otoitza.

Nere Jainko guzizona! Nere pekatuen artean nago, ta arrituta gelditu naiz. Eztakit nundik asi ta ez zer esan. Zure zuzentasun aserrea-

ri begiratzen badiot ta nerekin sartzen bada galdua naiz, Jauna, nere oker eta zure kalteko gaizkeriak, asko diralako. Buruko illeak ta itxasoko ondar aleak baño geyago dira, ta oyen aztuntasunak betiko ondatzen nau.

Zer egin nezake bada, estura

FUNDACION SANCHO EL SABIO

ontan? Lotsaz ta ikaraz nere ezerezera ondaturik, zure zuzentasunetik zure ontasunera biurtzen naiz, ta oni nere aldez deitzen diot. Badakit Jauna, zure ontasunak azkenik ez duala, ta nere gaiztakeri guziak baño aundigoa dala. Bearra det, Jauna, bearra det: ta au obeto arkitze-

ko Santu guzien egizko damu ta asmoa orain iduki nai nuke.

Pekatuari gorroto gabe ezin begiratu diozun Jaun guziz santua! Nere Jesus, zure semeak eta zuk gaiztakeriari beti dezuten ezin esan alako gorrotoa bera, zure zuzentasunari eskeintzen diot: ta ori da zure on-

tasunari dagokion ordaintze osoa; ar ezazu, bada, Jauna, eskeintz aundi au: ta ez nigatik, ezpada zure Seme Jesukristo gure Jaunagatik, ta bere izenean eskeintzen dizut.

Ez, arren, Jauna, nere oker aundiai begiratu, baizikan aren gurutzeko oñaze, neke ta naitasun guz-

tiai: an, nigatik ta niri barkatzeko, oñazez ta deadarrez otoi egin zizun: ta zuk bere biotz onagatik Jesus onari aditu ziñion. Indazu, bada, ondo aitortzeko bear dedan laguntza. Alaxen.

### Aitortu-aurreko damu-egintza.

Jauna, zu zera nere Jainko guziz oña ta orregatik,

zuri kalte egiña biotzetik damu det.

Jauna, zu zera nere Aita guziz maitea: ta orregatik zuri kalte egiña biotzetik damu det.

Jauna, zu zera nere jabe guziz santua, ta orregatik damu det zuri kalte egiña.

Jauna, zu zera nere ongille guziz

maitetsu ta esker guzien emalle txit ugaria; ta orregatik biotz guztitik damu det, nere pekatuz zuri kalte egiña, geyagoren geyago zuri kalte ezegiteko asmoaz.

Jauna! Zu zera nere Salbatzalle, ta eman nai didazu zeruko zoriona! Orregatik, bada, ta guztiz ona zeralako, damu det,

Jauna nere pekatuaz, zuri kalte ez geyago egiteko asmoa artuaz.

Nere zorigaiztoko pekatuak beñere egin ezbanitu! Zer zoriona, milla bider il banintz nere Jaungoiko maiteari kalte egin baño lenago!

Jauna: ez geyago zuri kalterik; Jauna zuri kalte

egin baño, ni il-
tzea nayago det.

Beti ondo, da-
muaz, asmo on ta
bear bezela aitor-
tzeko, iru gogora-
pen oyek jakiñak
dira: Lenengoa: e-
dozein aitorleren-
ganajoatean,gogo-
ra zaite Kalbario-
mendian Gurutze-
pean, Jesus'en o-
ñetan jartzen ze-
rala. Ama Birji-
ñaren, ondoan an

arkitu baziña zer-
egin edo esango
zenduan? Bigarre-
na: Sinismen bizi
batez sinistu, eta
esan zuregan: o-
rain aitortzen naiz
Jesukristo'ri ta ez
gizon bati. Kris-
to'k nere pekatu
guziak dakizkien-
ezkeroz lotsaz ez
utzi ezer. Irugarre-
na: Aitorpen ontan
Jainkoak edo ain-
geruak esango ba-

lizu, au zure atzeneko aitorketa dala, nola aitortuko ziñake?

Iltzeko bezela beti aitortu zaite: esan bada Zure oker-egiñak garbiro ta ez besterenak. Gero aitordileak zer esaten dizun, zer ongi-esanak, zer penitentzi ematen dizkizun ondo aditu: damuz barkapena

artu, ta jaiki Jainkoari eskerrak ematera ta Jaun artzeko ondo gertu egotera.

(Au bera beste toki batean, ondo aitortzeko ta ondo Jaun artzeko otoitzakin arkituko dezu.)

## AITORTZE-AURRERAKO

### IRU GOGORAPEN

Sakramentu ontan bear dan ondorena ateratzeko aitorpen guztietan iru gauza on-

do gogoan euki bear dituzu:

Lenengoa: Edozein aitorleen oñetan jartzean Kalbario-mendian Jesus'en Gurutzepean arkitzen zerala.

OTOITZA.

Ostiral santuz ni an arkitu banitz! zer negar, zer biotzeko deadarrak egingo nituan! Nere Erosle maitea! nere pekatuak ipiñi zaituzte era negargarri o-

rretan. Ez Jauna geyago ibillera gaiztorik, baizik bizitza berria: ala ematen dizut itza zure laguntzaz batera, ta uste osoa daukat barkatuko dizkidatzula nere ontasunak dirala bide.

Bigarren: Aitortzera zoazen guzian, sinismenik bizienaz gogora zaite ez gizon baten, ezpada Jesukristo'ren oñetara zoazela.

## OTOITZA.

Nere biotzeko Jesus! Baldin Jerusalen'en zure egunetan bizi izan banitz, edo zu orain, garai artan bezela, emen agertuko baziña, zure oñetan belauniko jarririk bereala esango nizuke: ona, Jauna, pekataririk galduena; pekatu aundi as-

koren gaitz gogorren azpian ondaturik arkitzen naiz. Zu zera nere animaren sendagillea. Zuk dakizu nik baño obeto nere gaitz guzien berri. Arren, zure ontasunak dirala bide senda nazazu. Banua bertatik, zuri nere pekatu guziak zure apaizaren oñetan aitortzera. Ta zuk

nere berri dakizunezkero, ez lots ta ez bildurrik izango ez det, nere barren guzia agertzeko.

Irugarrena: Aitortzen zeran guztian buruan artu ezazu ori izango dala azkenekoa, ta iltzeko aitortzen zerala. Il bearra sinismeneko gauza da, ta bear bada au izango da atzeneko zure aitorpena.

OTOITZA.

---

Nere biziaren ordu ta egun gu-

zien jabea! Zuk esango bazidazuke au dala nere atzeneko aitorpena, iltzeko zorian nagoala, bereala il bear dedala, edo nere Aingeru zaintzalleak zure izenez gaztigu au egingo balit: ea, orain aitortu eta bereala il bear dezu, Jesus milla bider! Agur esango nuke, agur mun-

dua; ken, ken ortik nere lagun gaiztoak, urrutira betiko nere biotzetik oitura txarrak: zoazte emendik, ondasun gaizki eramanak; zoazte nere ibillera gaizto ta munduko atsegin gezurtiak: zoazte anima ta gorputza galdu didazuten jan- edan gaiztoak: zoazte guziok oraindaño

zoratu eta galdurik euki nazutenak: il bear det, Jainkoak ala dio ta ala nai du. Nere Jesus ona, nere jabe maitea! ta, bai damu detala Zuri nere pekatuaz ainbeste bider kalte egiña! damu det lenago bear bezela ez ondua. Zu, nere Jainko ta nere Aita ona, maitatu bea-

rrean ainbeste biderkalteegindizut
Nun da Jauna nik eman bear nizun begirapena? Nun da nik zuri bear nizun naitasuna? Etzan neretzat asko zure seme izatea? Bai nere Jesus ona. Damu det Jauna, nere biotz guztitik zure agindurik ez egiña orren ona ta zuzena zeralako.

Zugan Jauna arkitzen dira Zeruko Deunak, Aingeruak eta aur guziak beñere ezin esan eta adituko ez dituzten bikaintasun, aunditasun eta ontasun guziaz. Zu orrelakoa izanik, damu det zuri kalte egiña, Zu zeranagatik bakarrik. Atzeratuko ditut nere oitura ta egite gaizto

guziak, eta egingo det penitentzia nere pekatuen ordez Zu maite zaitudala adieraziaz ondorengo biziera berri baten bidez. Alaxen.

Onela jarri naiko zera iltzeko garayan. Ori gogoan ongi artuezkero ondo egingo dituzu urrengo zure aitorpen guzi-guziak.

Oraindaño esan danetik ezagutuko dezu pekatuen gogoratzea egin eta beste gabe aitortzera dijoazenak, gaizki aitortzen dirala damu ta asmo on gabe, eta guzizko aitorpen oso bat egiteko bearrean arkitzen dirala.

Gañera damu ta asmo au iristeko, bear da askotan

pekatuak gogoratzen baño beta geyago.

Aurreko egunetik edo lenago lan ontan jardun gabe, goizean laxterka jantzi eta damu ariñarekin beste gabe bereala aitortzea gauza gaiztoa da, zalapartan nekez ondo gauza oek egiten oi diralako. Beintzat etzenduke naiko il-

tzeko garayan orrelakorik egitea.

Lenagoko pekatuak barkatuak egonarren aitorpen ona dala bide, aen eta beste guziaz aitortuak ezpaleude bezela damua artu bear da.

Gero apaizaren aurrean belaunikaturik «Gurutze santuaren» egin eta esan biotzetik: «Ni pekataria» edo

«Nere Jesukristo Jauna» eta gero aurreratuko zera ixil ta arrokeri gabe eta esango diozkatzu zure pekatuak diranak diran bezela.

AITORPENA ONDO EGIN
TA GERO ESAZU
OTOITZA.

---

Nere Jaun biotz bigun ta errukizko Aita! zure odol ederrean nere anima bere gaizke-

rienloyetatik garbitu nai izan dezu. Zuri eskerrak, Jauna, pekatuen eriotzatik azkatuta zerorren eskeintzaren ontasunak zure Sakramentuan eman dizkidazulako. Eta orain aldezun sinismen bizien ta naitasun irazekienaz zure biotzean Jaun-artu zazu. Aita, baña or ino-

la egin dezaket? Ona nola: sinismen bizi ta biotzetik esayozu uŕengo,

## ONDO JAUNA-ARTZEKO JARDUERA.

Gauza jakiña da, aitońtzen dan guztian ez dala beaŕa Jauna artzea, eta kristau asko askotan gelditzen dirala Jauna aŕtu gabe.

Beinik-bein aitoŕpen oso ta guziarena egiten danetan, bi edo iru aitorpen alditan ez da Jaunik aŕtzen. Eta Jauna aŕtu aŕterano pekatuak barkatzen ez dirala uste izatea uts aundi ta gaizto bat da.

Ala zuk uts egin ez dezazun ontan, ez dezu beñere Jauna aŕtu beaŕ

aitoŕleak agindu gabe, ta utziazez joateko esaten dizunean; ta baldin agintzen badizu Jauna aŕtzeko, gertu jaŕiko zera ondorengo gogorapen onen bidez:

FUNDACIÓN SANCHO EL SABIO VITORIA

GOGORAPENA.

Gogora ezazu ondo Jauna aŕtzeaz zugan nor datoŕen. Jesukristo gure Jauna, Jaungoiko

eta egizko gizona, bera dan guzia, Osti santuan dator̃, zuri laguntzera. Eta zu nor zera?

OTOITZA.

O Zeruetako Er̃ege, Jaun aundi, nere Jesús maitea! Zu nigana Zerutik jetxi zera Au zer da? Nori onelako gauzik zure ontasunari

baizik gogoratuko zitzayon? Izan ote diteke, (eta sinistu beaŕ dan egia da) nik Zu, nere Jaun aundia, Osti txiki baten nere biotzean aŕtu beaŕ zaitudala? gauz guziz eskutatua ta guziz aŕigaŕia! Zer egin dezaket nik ezpada zure auŕean aŕitu, makuŕtu ta nere biotzeko ateak zu-

ri pozik iriki, nere animako ostatu argal ontan Zu, Eŕegerik aundiena, aŕtzeko? Nork lukean zeruaren garbitasuna! Aingeru ta Santuen txukuntasuna eta zure Ama Birjiñaren onbideak, zu orain beaŕ bezela aŕtzeko, nork lituzkean! Egia da, ni pekatari galdu bat naizela; baña,

Jauna, zu zera nere sendagai guzia. Atoz bada, atoz ontasun guzien Jabea. O nere emalle guziz aberatza! Zure azkengabeko ontasun eta zure emanayak erakaŕi zaitu Zerutik luŕera, zure ondasunak zeroŕekin batean neri emateko. Biotz on berdin gabea! Badakizu, zu aŕtzeko

gai ez naizela, ta ala ere oŕegatik zure naitasunak zakaŕtzi nigana, beaŕa daukadalako. Indazu sinispen bizi, itxedopen eta maitetasun irazeki bat, Zuk nayen dituzun beste onbideakin, zu nere animan ondo aŕtzeko eta auŕera obeto maitatu ta jaŕaitzeko. Alaxen.

Apaiza Jauna ematera datoŕenean, auŕeratuko zera Jauna aŕtzeko tokira sinispen biziz beterik, eta bendizioa ta barkapena ematean, zuk ere Jaunari eskatuko diozkatzu. Jauna aŕtzen dezunean eskatu zazu aoz edo biotzez, zeroŕek geyago maite dezun eran.

## JAUNA ARTZEAN.

Jauna, ez naiz ni Zu nere etxean saŕtzeko gai, baña asko da zure itz bat, nere anima sendatzeko ta zeruratzeko. Alaxen.

Gero Jauna afŕtzean egon beaŕ dezu geldi; burua jaso zuzen, begiak luŕeruntz edo itxita; aboa era onean zabaldu, ta mingaña pixka bat atera beaŕ dezu, eta oŕela bear da Jauna artu.

Eskeŕak emateko erara jarri zaite toki on batean, ta alegiñak ez beste gauzai begiratu ezpada zure Jaun aundiari bakaŕik: zure zentsu guziaz zere baŕenean saŕ zaite, etoŕi dan Jesus maiteari itz egiteko, eta eskeŕak emateko esanaz onela:

## OTOITZA.

---

Ongi etoŕia zerala nere Jaun aun-

dia eta nere guztia! Bai aundia dala zure naitasunaren indaŕ berdin gabea! Nori beñere gogoratu, Jauna, zuk neri onelako eskeŕa egingo ziñidala? Nere Jesus guziz ona! Ezin, Jauna, ezin beaŕ bezela ni zure gai izan! Eta zer ostatu kaxkaŕa nere biotzean aŕtu dezun!

Baña Zu zera bakaŕik Zeruan eta luŕean nere Jaungoikoa. Zu asko zaitut bakaŕik, ta zurekin txit aberats naiz.

Ea bada, atozte baŕena, atozte nere begiak, nere eskuak ta beste zentzunak, atozte guziak zuen Jabe maitati oni ongi etoŕia ematera, ta guziok Jesus

biotzean ta beraren antzera izan eta biziera beŕi bat egiteko beaŕ dezutena eskatzera. Zuen guzien sendagayadabera. Nere gogoramen ta naya: atozte guziok batean betiko zuen Jabea goratzera Alaxen.

ESKARIA.

Zeruko nere emaīe ugaria! E-

tzera ostatu kaxkaŕontara alpeŕik iritxi, eta ez utzik nigana etoŕi, ezpada ondasunez beterik, nere Jaberik onena bezela. Ondo beaŕtua nago zutzaz. Badezu nigan nun zure laguntza ondo ipiñi. Ona, Jauna, oñetan eta begien auŕean nere anima iḶuna; oŕa nere begiak, min-

gaña, eskuak eta beste zentzun galdu eragabeak zuk sendatu, zure bedeinkapenez bete ta zure antzera egiteko.

Nundik eskatzen asi ez dakit Jauna. Zuk nere beŕi obeto dakizu, eta zuri gogoa egiteko, zure nai gozoa nere etxeko ta ateko lanetan, nere setutasun ta asnas

guzietan beti egiteko, zure laguntza indazu: eta ořekin aberats ta zori onekoa beti izango naiz. Alaxen.

## OTOITZA.

Zeruko ondasun guzien Jabea! Ez dizut utziko nere animaren etxe argal ontatik irtetzen: ez dizut utziko nigandik joaten

ni utsa, ta beartua utzirik. Ez, Jauna, nere ostatu ontatik joango etzera ni zure bedeinkapenaz bete arteraño. Guzien jabea zera eta beartsu guzien ongillea: badezu nigan ondo zer egin. Ona, Jauna, nere anima, lur legoŕa bezela, zure euri gozoaren eske. Ona emen ontzi utsa

bezela, Zuk eskeŕez betetzeko. Badakizu, zure apaltasun, eramankizun, maitetasun, ixiltasun, animako ta gorputzako garbitasunaz zer beaŕ andia daukadan. Oriez gañera, indazu zure bedeinkapena, nere biotz au, nere begi, mingain ta beste zentzunak zure gogora zuzentzeko.

Zure biotz santu-az biotz beŕi garbi bat indazu, zure antzera bi-ziera beŕi bat egi-teko, nere alegin guziaz zuri jaŕai-tzeko, nere zori-ona daukan zure naya, orain luŕe-an egin eta gero Zeruan beti izate-ko. Alaxen.

## ANIMA KRISTI.

Ignacio Aita Deunak beti esan zuan OTOITZA.

---

Jesus'en anima,

santu egin nazazu.

Jesus'en biotza, irazeki nazazu.

Jesus'en gorputza, zeruratu nazazu.

Jesus'en odol ongilea, zure onez bete nazazu.

Jesus'en biotzeko ura, garbi nazazu.

Zure zaurien artean, gorde nazazu.

Etsai gaiztoetatik azkatu nazazu.

Nere eriotzako

garayan oju egin zaidazu.

Zugana joatea agindu zaidazu.

Santu guziakin zu beti goratzeko beti betiko. Alaxen.



## Ama Birjiñari ta Santuai
## OTOITZA.

---

Zeruko gure Ama Birjiña Maria Deuna, nere Erosle ta Jaun aundi onen Ama maitea! Zeruko Aingeru ta Santuak atozte nere etxe beaŕtsu ontara, zuen zorion guztianerekin batean eta bio-

tzean gogoratu eta bedeinkatzera, eta nere uts guziak betetzera.

Nere biotzeko Jaungoikoa! Zure santu guziak beti bedeinka zaitzatela, neri egin didazun eskeŕ onegatik. Ezer ez det, Jauna; zuk dakizu nere beaŕtasunaren beŕi. Zuri eskeŕak emateko zer eskeñi edo a-

gindu ez daukat, ezpada nere biotz otz eta il au. Ořa, Jauna, nik dedana, ta naizen guzia zurea da, ta izan bedi betiko zurea.

Jauna, bai gauza labuřa, bai gutxi dala biotz bakař bat, eta ori ain epel ta ezereza, nerea bezela danean! Zeruko Santu ta Aingeru guzien gogo irazekia

ta munduan diran guzienak nik banitu zu beti gogoratu ta maitatzeko! Guziak nai nituzke, ta diranak, Jauna, zuretzat, zuri naitasun onez guziak eskeintzeko eta eskeŕ onak emateko. Alaxen.

---

## TERESA DEUNAREN

### OARRAK.

Il zaite bizi nai badezu. Naigabeak eraman, pozik nai badezu izan. Jetxi, nai badezu igo. Galdu, nai badezu irabazi.

Gora Jesus ta Maria.

## MEZA DEUNA ZER DAN

Eguzkiak Zeruko izar guzien edertasuna estaltzen duan bezela, Meza santuak ere lurreko naitasun guziai gañez eragiten die, gure Erlijio Santuak dituen guzietan aundi eta ederrena dalako. Baña zer da Meza? Da Jesukristo gure Jaunak bere gorputz eta odol ongilleak es-

keintzen diozkan bere Betiko Aitari ogiaren eta ardoaren antzen azpian, gauz arrigarriz beterikako jainkozko eskeintz bat.

Jesukristo'k ostegun santu gabean, edo atzeneko aparian egin zuan eskeintz miragarri ura bera da; Betiko Aita gurutzean iltzean eskeñi ziozkan oñaze ta eriotzaren eskeintz berri bat; ta azkenik, bere Pasio Santuko oñaze, ibillera ta misterioen eta oetan era-

kutsi zigun naitasun irazeki neurrigabekoaren oroipengarri bat.

Mezako eskeintzaz Aguztin deunak erakusten ditun lau gauz jakin bear dituzu: *Nor dan eskeintz au egiten duana; nori eskeintzen dan; eta norentzat edo zertarako eskeintzen dan.*

Orain bada, nor da Mezako eskeintz egiten ta eskeintzen duan Apaiz lenena? *Jesukristo gure Jauna, Betiko Aitaren semea da.*

Nori edo zeñi eskeintzen dio? *Betiko Aita berari.*

Eta zer eskeintzen dio? *Bere gorputz eta odol ederra bere azkengabeko irabazi guziakin batean.*

Norentzat edo zertako eskeintzen diozka? *Jaungoikoa goratzeko eta eskeintz arrigarri onen bidez gure onerako esker asko iristen dizkigulako.*

Agustin deunak berak dio, Mezatan gauza bi gertatutzen dirala: bata agirian ikusten dana. Bestea

ikusten ez dana edo barrengoa, ta da *Jaungoikoaren semea bere Gorputz ta odolarekin Betiko Aitari eskeintzea.* Barrengo eskeintz onek ematen dio besteari bere izate edo bizia. Baña zertako? Orain esango diran lau gauzetarako:

*Lenengoa:* gu laburrak geralako, Jainkoa azkengabea izanik: eta Jainkoaren Semeak gure izatea daukan ezkero, berez azkengabekoa dalarik, au guk eskeñiaz ematen

diogu Jainkoari gugandik nai duena eta aren aunditasunari ondoen dagokion gorapena.

*Bigarrena:* da gure Jaungoikoagandik artu ditugun laguntza guzien esker onak emateko.

*Irugarrena:* da Eskeintz santu onen bidez Jainkoagandik guretzat eta gure adizkidientzat nai ditugun eta on diran eskerrak iristea, bai animarako ta bai gorputzerako.

*Laugarrena:* da Jain-

koaren aserrea biguntzeko aren zuzentasunak pekatariai bereala gogor ekin ez dezayon, eta bere errukitasunaren bidez eman deigun laguntza egoera errukarri artatik irtetzeko.

Emen ipintzen det Espiritu Santuak Trentoko'ko Billaldian erakutsi zuan ikasbidea:

FUNDACION SANCHO EL SABIO

*Lenengoa*, Santuen gorapenerako elizan mezak esaten badira ere, eskeintz ori etzaye santuai egiten, baizik Jaungoikoari, au bakarrik santuak

egin ta zorionez inguratu zituana dalako.

*Bigarrena*, Santus'etik aurrera Mezako gauza guziak Jaungoikoaren santutasun aundia aditzera ematen dutela, edo Misterio oriek Zeruko jainkozko usaia dakartela.

*Irugarrena*, Espiritu Santuak Billaldian agintzen die (Mandat. S. Sinodus etc. Ses. 22, cap. 8) animak zaindu biar dituzten Apaizai, Meza Santuko gauzak

beren Ardiai askotan erakustea. Apaizaren jantziak, itzak, gurutze, agerkun eta egite guztiak misterioz beteak daude. Euskaldunak beren goi-maitasunerako oriek al dan ondoena jakitea on da; ta Santuen ikasbidea orain nik emango diet onela:

## Mezako Misteriyoaren
## IKASBIDEA.

---

Apaiza bere elizsoñekoa jazteko Sakristian sartzeak esan nai du Jesukristo A-

ma Birjiñaren sabel-garbian sartu zala ta gure aragizko soñekoa jantzi zuala Betiko Aitari bere bizia eskeñiaz.

*Amitoa*, da Apaizak burutik bera jartzen duan estalki zuri bat: eta esan nai du, juduak Jesukristo'z par egiteko ta masallekoak berari emateko arpegia estali ziotela.

*Albak*, Kristo zuriz jantzirik Erodes'ek burlaz Pilatos'i bialdu ziola.

*Zinguloak*, lokarriz

gugatik lotu zutela.

Ezker-besoko, *Manipoloak*, zigorrez jotzeko eskuak lotu ziozkatela. Ezkerrean ori jartzen da Jesus' en biotzeko naitasuna, gugatik zigorradak artzean. ta guk zor diogun naitasun aundia erakusteko.

*Estola*, lepotik gurutzaturik artzen du eta esan nai du Jesus irugarren aldian gurutzea artzeko lokarri gogor aundiz lepotik lotu zutela.

Guzien gañean jartzen dan *kasulla*, par

egiteko gorrizko soñekoa jantzi ziotela edo gurutzean josteko soñeko joskura gabcea kendu ziotela.

Jantzi edo Soñekoak oek dira.

Mezak iru zati edo puska ditu, *Eskeintze*'raño bat, *Pater noster* edo *Jauna artzera* bestea eta *azkeneraño* bestea. Bata da buru-eskeintzarakoipintzea; bestea eskeñi, konsagratu edo Jauna artzea, eta irugarrena da Jaunari eskerrak ematea.

Ondo ikusirik zer

aditzera ematen duten Misterio oek, esango dezu:

Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

## MEZAREN ASIERA

Gogora ekartzazu Jesukristok gure pekatuak bere gain arturik orien zorrak ordaindu zituala.



OTOITZA.

Jauna, entzutera noan Meza au eskeintzen dizute-

gin dizkidatzun laguntz guzien eskeŕak emateko, nere ta beste guzien pekatuen baŕkapena iristeko, eta indazu Zeruko bidean beaŕ eta on izango dedan laguntza, batez ere pekatutik alde egiteko eta bizitz onean irauteko eskeŕa.

## INTROITOAN.

Gogora ekartzazu lege zaŕeko santuak Jesukristo gizon egiteko zale zeudela.



LH DEGERMY

OTOITZA.

# Nere Jesus maitea, nere anima zure naitasun san-

tuan irazeki zazu, nere pekatuak ezagutu eta oriekin zuri gaizki egindako egizko damutasuna nere bizi guzian iduki dezadan. Alaxen.

## KIRIE ELEISON.

Gogora ekartzazu Irukoitz edo Trinidade txit Santuari eŕukitzea eskatzen zayola.



### OTOITZA.

Jauna, eŕuki zaite nitzaz. Jauna, eŕuki zaite

nitzaz. Jauna, eŕuki zaite nitzaz. Jesukristo, eŕuki zaite nitzaz. Jesukristo, eŕuki zaite nitzaz. Jesukristo eŕuki zaite nitzaz. Jauna, eŕuki zaite nitzaz. Jauna, eŕuki zaite nitzaz. Jauna, eŕuki zaite nitzaz.

---

## GLORIA IN EXCELSIS DEO.

Gogora ekartzazu aingeruak Jesus'en jayotzan kantatu zutela.



OTOITZA.

Aingeruak goratu dezatela, Junna, zure ontasuna

zu jayo ziñanean bezela. Orain gure animetan zure laguntzaz jayo nai dezu. Goratzen, zoriontzen ta maitatzen zaitugu. Zure zorion aundiagatik eskeŕak ematen dizkitzugu. Gure okeŕen barkapena eskatzen diguzu.

---

## DOMINUS VOBISCUM.

Gogora ekartzazu Jesukristo gizonai ezagutzera eman zitzayela ta iru Erregek adoratu zutela.



OTOITZA.

Jauna, Apaizak Santuen bitařtez eskatzen dizuna,

na nik ere eskatzendizut. Aŕen Jauna, aŕen eta nereeskaerakentzun itzazu. Iguzu emen luŕean zure laguntza eta Zeruan betiko zoriona Jesukristo gure Jaunaren irabaziakgatik. Alaxen.

EPISTOLAN.

Gogora ekartzazu Apostoluak penitentzia zabaldu zutela.



OTOITZA.

Gure Jesus Erakusle bakaŕaren auŕean guziak

ixil bitez. Atoz Jauna, ta itz egidazu: indazu nere biyotzean zure Igarle santuen zintzotasun ta maitetasuna, zure aginduak bete ditezen Alaxen.

## EBANJELIOAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'k munduan bere erakusketak zabaldu zituala.



OTOITZA.

Luŕeko bide pozgabe ontan nabillen aŕtean, Jau-

na, gauza bi txit beaŕak ditut: argia ta janaria. Ez, aŕen, oriek neri ukatu. Zure Ebanjelioko erakusketak nere ibiI̵eren argi izan bitez eta zure jainkozko gorputza nere gogoaren janaria emendik Zeruraño daukaten bidean erori ez nadin. Alaxen.

## KREDOAN.

Gogora ekartzazu ebanjelioak lege santua ekaŕi digula, ta aoak aitortzen duala biotzak sinisten duana.



OTOITZA.

Esazu Kredoa biyotzez. Gero esazu: Jauna zuk

Eliz Ama Santuari erakutsi diozkatzun sinispeneko egi guztiak sinisten ditut. Indazu laguntza nere bizitzako egintz guztiak sinismen biziz egiteko, gero orien sarian zurekin bizi nadin. Alaxen.

## OFERTORIOAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'ren Ikasbideak ematen digula sinismena ta au aitoŕtzeko laguntza.



OTOITZA.

Jauna: Zure semearen buru-eskeintz au Apaiza-

rekin batean eskeintzen dizut zure zorionik aundieneerako: neri eta mundu guztiari zuk egindako laguntzen eskeŕak emateko: neretzat eta guzientzat eskeŕ guziak zugandik iristeko: zure Seme gure Jaunagatik. Alaxen.

## SANTUSEAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo astoaren gañean Jerusalen'en sartu zanean Juduak kantatzen ziotela: Santua, Santua, Santua.



OTOITZA.

Jauna, Zeruko aingeru guziakin gośatzen zaitut.

Gugana etoŕi nai dezu. Eman nai dizkitzut bada biotzetik ongi-etoŕi ta bedeinkapen guztiak. Santua, Santua, Santua ta zorionez beteazaudeguretzat. Jauna, zurea da zoriona. Alaxen.

## ILDAKOAZ GOGORATZEAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'ren Nekaldi santuaren asiera.



OTOITZA.

Zure seme Jesukristo'ren bidez eskatzen dizut

Jauna, Eliz Deunaren Aldez, Aita Santu, ta beste sinismendun guzien aldez: nere guraso, señide, aide, ongiIe, eta gaizkiIe ta pekatari guzien aldez, zure bidera biurturik, zu maitatzen guziok beti bizi gaitezen. Alaxen.

## OSTIA JASOTZEAN.

Gogora ekar'zazu Jesukristo gurutzean jaso zutela.



OTOITZA.

Maitatzen zaitut Jesus nere Jainkotzat, ta Osti Santu

ořetan maitatzen det guretzako aldarean Mundu guzia zeruratzeko eskeñi zan zure gorputza. Sinismen det zu oř zaudela.

FUNDACION SANCHO EL SABIO · VITORIA ·

## KALIZAJASOTZEAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'k bere zaurietatik odola ixuri zuala.



OTOITZA.

Maitatzen det, Jauna, gure animak garbitzeko

zuk eman eta gugatik gurutzean ixuritako zure odola: odol oŕetan uste det, nere gaiztakerien barkapena izango dedala. Alaxen.

## KALIZA JASO ONDOREAN.

Gogora ekartzazu beŕiz ere Jesukristo'ren Neskealdi ta bere eriotza.



OTOITZA.

Jauna, apaizarekin Meza au eskeintzen dizut zu-

re Semearen eriotza, piztuera ta igoera zoriontsuaren agurtzan. Osti garbia, osti santua, ostikutsugaizto gabea. Jauna, ez begira guri, baizik zure Seme maite oni, zure bedeinkapenaz onekin bat egin gaitean. Alaxen.

## OSTIA KALIZAREKIN JASOTZEAN.

Gogora ekartzazu Jose ta Nikodemus'ek Jesus'en gorputza gurutzetik jetxi zutela.



OTOITZA.

Nere Jesus ona, nere pekatuen zoŕa ordaintzeaga-

tik gurutze batean bizitza eman zenduan: indazu bada niri ere nere gaiztakeriak egizko damutasunez barkatzeko laguntza, orientzat ill, eta zurekin zeruan bizi nadin. Alaxen.

## AITA GUREAN.

Gogora ekaŕi itzazu Jesukristo'k gurutzean esan zituen zazpi itzak.



OTOITZA.

Esazu Aita gurea, onen zazpi eskariak geldiro go-

goratuaz. Egune-
roko ogia eska-
tzean aditzen da,
gure beaŕak eza-
gutzeko argia, Jau-
naren laguntzan
irauteko, ta gor-
putzarentzat jana-
ria. Alaxen.

## AITA GUREA ESAN TA ONDOREAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo Linbora jetxi ta an zeuden animak atera zituela.



OTOITZA.

Zure anima Jainkotasunarekin elkarturik jetxi zan

Linbora zintzoen animak neke artatik atera ta zorionez betetzera: indazu niri ere laguntza nere anima inpernuko nekietatik askatzeko lenbailen ta Santu guziakin zeruan goratu zaitzadan. Alaxen.

## OSTIA ZATITZEAN.

Gogora ekartzazu Emaus'ko ikasleak Jesukristo ezagutu zutela ogia zatitu zienean.



OTOITZA.

Nere Jesus animen zuzendaria, zure ikasleak be-

zela, eraman nazazu bide zuzenetik, nere biotza ta nere adimena bete ta irazeki itzazu zure naya egiñaz, zeruko zoriona iritxi dezadán. Alaxen.

## PAX DOMINI.

Gogora ekartzazu Jesukristo bere ikasleai agertu zitzayela ta pakea eman ziela.



OTOITZA.

Zure pizte zorionekoaren bidez idiki zenduan be-

tiko bizitzarako atea, eta ori aditzera eman ziñien zure Apostoloai esanaz: Pakea izan dedilla zuekin; eskatzen dizut, Jauna, eman degiozula nere animari pekatutik bide onera piztu ta bear duan laguntza. Alaxen.

## AGNUS DEI.

Gogora ekartzazu Jesukristo'k bere ikasleai pekatuak barkatzeko eskubideak eman ziela.



OTOITZA.

Jainkoaren bildotx garbia, munduko pekatuak

kentzen dituzun Jesus ona, erruki zaite guzaz.

*Au berriz esan, ta gero:*

Jainkoaren bildotx garbia, munduko pekatuak kentzen dituzun Jesus ona, zure pakea iguzu. Alaxen.

## JAUNA ARTZEAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'k bere ikasliekin jan zuala zerura igo baño lenago.



OTOITZA.

Jauna, Apostoloai eman ziñien bezela, Eliz San-

tuai ta guri pakea iguzu: Zure naya beti egiteko ta zugandik iñoiz ere ez uŕutiratzeko laguntza iguzu. Jauna, nik irabazi ez det zu nere animan sartzea, bañan itz bat esazu, ta nere anima zeruratuko da.

(Iru bider au esan bear da)

## JAUNA ARTU ONDOREAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'k bere indařez zerura igo zala.



OTOITZA.

Jauna, baldin zu beregan artzen zaituana, zuk zure

seme edo alaba egiterraño jasotzen badezu, aŕen, niri ere au egin zaidazu. Zure laguntzaz beŕiro jantzi nazazu, beti sinispen bizi ta irazeki batekin artu zaitzadan. Alaxen.

## BEDEINKAPENA EMATEAN.

Gogora ekartzazu Jesukristo'k agindu zuan bezela, Espiritu Santua bialdu zuala.




OTOITZA.

Nere Jesus maitea, zuk agindu bezela Espiritu

Santua sugar bizi ta mingañen antzean Apostoloetara etoŕi zan; egizu bada Espiritu oŕek nere biotz ta anima bere aŕgi edeŕaz bete ta naitasunezko suŕtan irazeki ditzala. Alaxen.

## AZKENEKO EBANJELIOAN.

Gogora ekaŕi itzazu Jesukristo'ren Jainkotasuneko ta gizatasuneko misterioak.



OTOITZA.

Nere Jainkoa, nik dedan ta naizen guzia zurea

izan ta Zuk eman didazun-ezkero guztia nik zuri biurtzen dizut, zure gogora zuzendu ditzazun. Zure naitasuna indazu, ta oŕela aberats izango naiz, ta besterik nai ez det zuk nai dezuna baizik. Alaxen.

## MEZA ONDOREAN.

Gogora ekaŕtzazu gaitzetik azkatu ginduelako Jainkoari eskeŕak eman beaŕ dizkiogula.



DEBERNY

**Meza Santuaren ondorengo otoitza.**

---

XIII'garren Leon Aita Santuaren aginduz 300 barkapen dauzkate.

**Errezatzen dira iru Agur Mari ta Salbe bat.**

OTOITZA.

Jaungoiko guziz altsu eta eskubide gu-

ziak dauzkazuna, gure laguntzalle ta indarra, eskatzen dizun erri oni arpegi onez begira zayozu, eta Ama Birjiña txit garbi Jesus'en Ama bere senar Jose deuna, Pedro ta Paulo apostoloen eta Santu guzien bitartekotasunez, entzun itzatzu erruki aundiz zure oñetan pekatari guzien biurpenerako ta gure Eliz Ama deunaren zorionerako ipintzen ditugun gure eskariak. Kristo gure Jaunaren bidez. Alaxen.

Migel goiaingerua, gorde gaitzazu ta izan zaite gure laguntzalle, etsayaren eraso-aldien aurrean Jainkoak menderatu dezan; au da gure eskaera laburra: eta zuk zerutar gudarien burua, inpernuetara sar-itzatzu gure animen galpenaren billa beti dabiltzan Satanas eta bere lagun gaiztoak. Alaxen.

## BESPERAK.

Gure Eliz Ama Santuak agintzen digun lenengo gauza da jayeguna santutzea. Eta santutzen ote dituzte arako laxterka eta itsumustuan meza bat ikusi eta gañerako jai guzia jostaketan, jolasean eta baita ere gaizkeri ta pekatuetan igarotzen dutenak, sermoi eta beren apaizaren gañerako erakusaldietara joaten ezdiran eta bezperetara joan bearrean sagar-

dotegi zuluetan, jokuan oi dabiltzanak? Zerorregan erabaki zazu, kristaua, begira ezazu, itsumen gabe, eta ikusiko dezu zure barrenak zer esaten dizun. Baña, bear bada, esango didazu: ni sermoi eta apaizaren erakusaldietara joatea, on litzake: baña bespere-tara zertara, baldin kantatzen ezpadakit eta kantatzen dutenak zer esan nai duan aditzen ezpadet? Zer egingo det an? Au da kristau epel, al-

per, nagiak eman oi duten aitzaki txarra. Baña besperak otoitzen zati edo puska bat dirala, eta beretan Jainkoa goratzen dala ez aldakizu? Zu gogoz edo nayez goratzen oekin bat egitea nork galerazten dizu? Auxe da besperak bitartean zuk egitea Elizak nai duana. Erlijiozko egiteko au zuri erraztutzeko eta aitzaki guziak kentzeko, ipintzen dizkitzut Salmorik ainbat jarduera, beretako bakoitzean

gelditu zaite pensatzen apaizak kantatzen duten salmoak diraunerano.

### Lenbiziko salmorako jarduera

Anima Jainkoari deituaz apal-apaltzen da.

---

Atoz, atoz nere Jaungoiko laztana, atoz eta lagun zadazu laxter.

Zu zera nere Aita, ni eskergabea banaiz ere atoz, Jauna, etzaitzala nere eskergabekeriak atzeratu, damutua nago-ta.

Nik nere ezereztasunaren erditik dea-

dar egiten dizut, Jauna errukizaitezela nere anima gaiztoaz.

Zu gabe zer egingo det, nere biotzeko Jainkoa? Aritzetik kendurik surtarako dagoan adarra bezela, nai ta ez ilko naiz.

Pekatari beartsu ta errukarri bat naiz; indazu zure laguntza bera gabe gauz onik ez dezaket-eta.

Bakarrik pekatua da ni bildurtzen nauana, Jainkoak galerazten didalako ta Jainkoa galduezkero, gu-

zia galtzen dedalako.

Mundu ontan guzia bukatzen eta aitutzen da, baña Jainkoa betikotasun guzian biziko da, eta berak nere zorion edo zorigaitza egingo du, nik bera maitatzen edo kalte egiten dedan eran.

Nere Jainkoa, aitor ditut egi oek; eta makurtzen naiz zure Aunditasun maitagarriaren aurrean.

Zu zera nere Jaun-Jaungoikoa, ni zure mendeko ezereza, eta laguntza eskatzen di-

zut nere biyotz guztiz.

Kastigua baizik bear ez nuke, Jauna, baña zure ontasunagatik guzia uste det, zure odolaz irabazia nagoalako.

Bakarrik gauza bat asko zait eta bakarrik gauza baten zale naiz, eta da, zu, nere Jaungoikoa, lurrean eta zeruan neretzea.

Gloria Aitari, gloria Semeari, gloria Espiritu Santuari, betikotasun guzian. Alaxen.

## Bigarren salmorako jarduera.

**Jesukristo'ren irabazpideak zerua irabazteko itxodopen aundi bat emango digute.**

Jainko eta betiko Aita! Nere pekatuak bildurtzeko gai eta bideak ematen badizkidate, zure seme Jesukristo'ren ontasunak uste izateko askoz bide aundiagoak ematen dizkidate.

Bide oek askoz indartsuagoak dira ni zeruratzeko, nere pekatuak ni galtzeko diran baño.

Egia da nik pekatu egin nuanean be-

tiko nere galpena billatu nuala, baña egia da ere, nere erosleak nere galerako epaya urratu zuala eta bere odolaren ordez erosi ninduala.

Nere gaiztakeriak nereaurrean kastigu eske daude; baña Jesus'en odol ongilleak nere alde egiten du, Jainkoaren aserrea gozaturik.

Odol guziz ongarri au indartsuagoa da Jainkoaren errukipena iristeko, Kain kondenatzeko Abel' ena izan zan baño.

Nola nik barkapenaz etsiko det, Jesus nere naitasunez gurutzean josirik ikusita?

Guziz uste oso ta betea daukat, ni zeruratzeagatik ainbeste eraman zuanak emango dizkidala zeruratzeko bear ditudan laguntzak.

Goazen bada nere anima, zorionaren jarlekura, barkapena iritxiko degun uste osoan.

Baña goazen laxter, ez dezagun eskubide au galdu, bear

bada geroago betik izango eztegulako.

Nere Jesus! Artu itzazu nere gogoa, nere biotza ta nere naitasuna; guziz maite zaitut eta betikotasun guzian maitatu nai zaitut.

Gloria Aitari, gloria Semeari etc.

### Irugarren salmorako jarduera.

**Neke-lanetan eramankizuna.**

---

Guztiz zorionekoak ezin izango gera zerura joan arte: lurra, gurutzez eta oñazez betetako toki bat bai-da.

Lurrean gure bizitza laburra da, eta samintasunezeta naigabez betea dago.

Oek eramankizunez daramazkiena zeruratzen da; gogo gaiztoz daramazkiena berriz betiko galtzen da.

Lanaren galbayan bereizten da alea lastotik Jaunaren Elizan.

Naigabeak onez daramazkiena da zerurako berezitutako alea; gogaitzen eta asarretzen dana eta Jainkoa usten dua-

na, inpernuko sugarretarako bereizten dan lastoa.

Gure Eroslearen zauri guziak nekeak bere maitetasunez eramaten erakusten diguten beste ainbeste mingain dira.

Jesukristo'k gugatik eriotz gogorra artu zuan. Jesukristo'gatik eramatea da santuen jakintasun guzia.

Anima baten irabazpide guzia dago Kristo maitatzean eta bere maitetasunez nekeak eramatean.

Nere jainkozko eroslea! Ezaguerazi zaidazu zein maite izan nazun eta zenbat neke nigatik eraman izan dezun, nik zu maite zaitzadan eta zugatik eraman dezadan.

Lagun zaidazu Jauna, zure laguntzaren zai nere aragia argal eta gaxorik dago ta.

Nola nai ere mundu ontan neke ta oñazeak eraman bear ditut; beraz irabaziaz nekez beterik bizi nai det gurutze ta naiga-

beak eramanaz.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

Laugarren salmorako jarduera.

Urkoaganako naitasuna

---

Jainkoa maitatzen duan animak maitatzen ditu gizon guziak, Jainkoak egiñak diralalo.

Naitasunak bide guziak billatzen ditu al ditekean eran gure antzekoai laguntzeko.

Naitasuna da Jainkoak ainbeste eskatzen digun onbidea;

bera izan bear degu garai ta toki guzietan.

Bearrean daudenai naitasuna iduki bear diegu, guzienean munduko arrota aundinayak azpiratzen dituztelako.

Gaxo daudenai naitasuna iduki bear diegu, naigabez beteak eta askotan iñoren laguntzik gabe arkitzen diralako.

Adizkide ta ongilleaz naitasuna iduki bear degu, ezaguera onak egiteko au eskatzen dalako.

Gure etsayai naitasuna iduki bear diegu gure antzekoak diralako, eta Jainkoak ala agintzen digulako.

Gorroto bear diogu pekatuari, sinismenaren uts egiteai, erlijiogabekeriari; ez ordea pekatariai, erejeai, erlijiogabeai, Jainkoaren semeak diralako.

Eramankizunaz eta gozotasunaz eskuratzen eta garaitzen da arrokeria, biguntasunez gorrotoa.

Naitasunezko gogo

au da Jesukristo'k berak itz eta egitez erakusten digun Jainkoaren gogoa.

Santuak au iduki zuten eta guk ere au iduki bear degu, baldin ayek irabazi zutena nai badegu.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

### Bosgarren salmorako jarduera

Jainkoaganako maitetasunaz.

---

Maitatu bear degu Jainkoa gauza guziak baño geigo, eta nai izan bear degu bera maitatzea gure mai-

tagarri bakarra bezela.

Jainkoa da maitetasunaren iturburu eta asiera, eta ala ez degu alkar maitatu bear ezpada Jainkoagatik eta berak, nai duan eran.

Gure etsaya alegintzen da guri urkoaganakonaitasuna eragabe emanerazitzera; eta gogo oni toki egiten diona galtzeko zori aundienetan jartzen da.

Zertarako det guztiak maitatzea eta berak ni maite izatea

baldin egilleak gorroto ba-dit?

Esango det bada aspertu gabe, Jainkoa maitatzea da nere asmo gozo guzia, Jainkoaren agindupean jartzea nere egiteko guzia.

Nere erosle gozoa gogoz artu ta geitu zazu nere gogo au, eta kendu zaidazu zuganako ez dan naitasun guzia.

Ni poztutzen naiz zure ontasun ondogabea gogoratuaz; ontasun onek pekatari damutua iñoiz ere be-

regandik botatzen ez du.

Zuk, Jauna txit maitatatua izan bear zenduke eta nik zure eskutik laguntzik asko artu ta artzen ditut, eta maitatatu bear zaitut.

Ona emen, nere Jainkoa ni zu maitatzera oso emana; eta milla biotz banitu, guziak zuretzat izango lirake.

Zuk nere maitetasuna nai dezu, nik maitatatu nai zaitut, eta orain betikotasun guzian maitatatu nai

zaitut.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

## IMNORAKO

### JARDUERA

---

Zuri deyez nagokizu. Jaungoiko guziz indartsua! Zatoz, neri laguntzera, ez luzatu ni babestea.

Nere etsayak gau ta egun erasotzen didate; baña zuk, Jauna, lagunduko didazu, eta il arteraño lazki erasoko det. Bai gozoa dala zure adizkidetasunean bizitzea! Bai atsegiña zure Ai-

ta, nere Ama eta nere Anaya. Baña nolako Ama, nolako Aita, nolako Anaya! Aitik gozoen eta indartsuena, Amik biguñen eta maitetsuena, Anairik zintzuen ta onena! Ni zure seme ta laguntzalle zintzo izango naiz beti. Jauna, nere Jabe gozoa! Zurekin bizitzea da nik nai dedana; zure zeruan arkitzea, nik nai nukena.

Nik nere Jainkoa, ezagutzen det nere ezereza; nik, Jauna, aitor det nere usta-

suna; baña zuk zerorrek esan dezu: *Utzi zayezute txikitxoai nigana etortzen;* eta ala ni zure adizkidetasunaren billa nator. Irazeki zazu Jauna, nere biotz au; indartu zazu nere naitasuna zu beti gora zaitzadan eta zugan beti nere gogoa euki dezadan.

*

# MAGNIFIKAT'ERAKO

## JARDUERA

Animak Maria txit Santua goratuaz bere babesean artzea eskatzen dio.

---

Maria, Jainkoaren ama! Zu zera onbidean eta agintean aingeru guziak baño aundiagoa; zu zera, Jainkoaz uŕena, gure uste osoa ere.

Zu zera naigabetuen pozgaŕia, erien osasuna, pekatarien gońdele-

kua eta zintzoen atsegiña.

Zu zera ontasunezko lorategi ederá; iritxi egizu apaltasun, gaŕbitasun eta maitetasunaren lore ederá.

Jesus'en Ama maitea! Itz egizu, zure Semeak aditzen zaitu-ta, eta eska egizkiotzu neretzat eskeŕ ugariak.

Zure oñetan auzpezturik eskatzen dizut, iritxi degidazula nerę pekatuen bańkapena ta, zure Seme ta nere eroslearekin bat egitearen zoriona.

Maria beti maitagańia! gogora zaite Jainkoaren semea zure eńai gańbietan gizon egin zala ez pekatariak galtzeko, ezpada zeruratzeko.

Nere Ama ta bitarteko gozoa, artu nazazu zure maitatzale zintzoen artekotzat.

Eman egizkidatzu zure ondasunak eskarez betea deitzen dizu aingeruak-eta.

Bere maitatzale zintzoa goratzen poztutzen da Jainkoa, lurreko aundinai aroak azpiratzen eta beera-

tzen dituan bitaŕtean.

Zorionekoa deitzen dizute eŕi guziak; eta zure izen santua gizaldítik gizaldira igaroaz joango da.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

OTOITZA.

---

Nere zeruratzallea! Nere pekatuen zoŕa ordain-

tzeagatik lokaŕiz lotua, iltzez josia ta gaizkiľe bat bezela gurutze batean iľa izan ziñana; nere okeŕakatik negar egiñaz eskatzen dizut, indazula zu maitatzeko eta iñoiz ere zuri kalterik ez egiteko bear dedan laguntza: ni, Jauna, zure eskuetan jartzen naiz; artu na-

zazu, eta zure biotzean iduki nazazu betiko. Alaxen.



# Kalbario'ko gurutze-bidea.

Maitetasunezko ta oñazezko Jesukristo'ren ibillaldia.

Jesukristo'rekin itz egiteko ziñatu, *nere Jesukristo Jauna* edo damu-egintza biotzetik egin, ta batek guzien i-

zenean eskeintza esango du onela:

ESKEINTZA.

Betiko Aita, Jaun guziz indartsua, begira, ez guri ezpada zure Seme maite Kristo'ren ar̄pegi eder̄ari, ta Kalbario'ko bide santu ontako ibil̄era guztiak, biotzeko maitetasun, ta asmo batean, zure zorionik aundienerako

izan bitez, ta zeruko otoiz onetan diran barkapen guziak, Aita santuak nai duen bezela egiñak irabazi nai ditugu, eta Ama Birjiñaren eskuetatik, zuk nayen dituzun purgatorioko animen laguntzarako, ta gu zerutzatzeko izan bitez. Alaxen



LENBIZIKO GELDIALDIA.

Erabaki dute,
Kristau maitea,
Gurutze batean
Jesus iltzea.

Eriotz-epaya Jesukristo'ri eman zioten tokia.

Gogora ekartzazu, kristaua, Jesus gure maitea ostiral santu goi-

zean bost milla ta geyago zigorkada, arantzazko burestuna ta beste oñazez gañera, gurutzean eta lapur biren erdian iltzea Pilatos'ek agindu zuala.

### OTOITZA.

Nere Jesus maitea! Joaldi, arantza, min ta lotsez beterik, ain ixil ta ain apalki zure eriotzako epaya gu-

re okeŕakatik aŕtu zenduana: Zure biotzeko maitetasun ta ixiltasun onegatik, aŕen, Jauna, indazu egizko damutasunez nere pekatuen kateetatik azkatzeko laguntza, azkenik nere aldeko epaya nik entzuteko. Alaxen.

*Jauna, damu del zuri kalte egiña; nitzaz eŕuki zaite.*

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria, Aita santuaren gogora, ta au geldialdi guzietan.



BIGARREN GELDIALDIA

Orain artutzen ditu
gurutze batean
gure pekatu danak
beraren gañean.

Jesukristo'ri gurutzea eman zioten tokia.

Gogora ekartzazu, kristaua, Jaunari, par egiteagatik, jantzirikako

soñeko zaŕa tiraka koroakin kendu ziotela; bere soñekoak jantzi ta koroa berriro oñaze gogoŕetan saŕtu ziotela, ta eriotzako boŕeroak gure pekatuen astuntasun guztia edo gurutzea bere gañean eman ziotela.

OTOITZA.

Nere Jesus bildotx guztiz ixilla!

Isaak onak baño obeto zure bizitzaren eskeintzako eguŕa, zure Aitaren agindua egin ta gure maitetasunagatik, zure bizkaŕean eramanzenduena; Zure biotzeko ontasun onegatik, aŕen, indazu laguntza nere eragabeko gogo gaizto guziak zure gogora biziro eutsi nere

okeŕai ondoen dagokien damutasunean, gurutzea beti zure ondoren gogotik eraman, ta luŕeko nekien bidez zeruko atsegiña irabazi dezadan. Alaxen.

*Jauna damu det...*



## IRUGARREN GELDIALDIA.

Emen eroritzen da
Auzpez aurera
Gurutze astunarekin
Jesus lurera.

Gurutzearekin Jesus lenengo erori zan tokia.

Gogora ekartzazu, kristaua, gure Jesus maitea txit nekatua ta oñen

gañean ezin egonik gurutzearekin luŕera erori zala: bere inguruan zijoazen gizon gaizto ta biozgabe ayek Jaunari lagundu beaŕean, ostikoka, joka ta aŕastaka erabiḷi ta nekez jeikierazo zutela.

OTOITZA.

Nere Jesus Jaun guztiz altsua, ta gure maitetasunez

onela aŕgaldu ta luŕa jo aŕterańo gurutzepean makuŕtua! Zure maitetasun ta eramankizun azkengabe onegatik, aŕen, zure eskua indazu, nere gaiztakeri aztunen azpitik, egizko damutasunaz zugana jeikitzeko, zure gurutzearen ondoren luŕeko neke ta oñazietan poziz ibili nadin

eta zure arpegi e-
deŕa zeruan iku-
si dezaḋan.

*Jauna damu det...*



LAUGARREN GELDIALDIA

Nork esan lezake Amak
zeukan oñazea,
onela ikusita
beraren Semea?

Jesukristo'k bere Ama guztiz Santua
arkitu zuan tokia.

Gogora ekaŕtzazu, kristaua, Kalbario-bide ontan Jesus onak bere

Ama maitea negaŕezko itxaso bat egiñik arkitu zuala. Begira ondo, begi maitetsuaz biak alkaŕ ikusi, ta biotz batak besteari maitetasunez itz egin ziola, ta biotz laztan biak oñazez ito ta estutuko zirala.

OTOITZA.

Oñazez betetako Amaŕik maitie-

na! Bai ezpata zoŕotzak zure anima josi zutela, zure biotzeko Semea era txaŕ aŕtan ikusi zendunean, burua arantzaz josirik, aŕpegi edeŕ ura txistuz, odolez ta autsez itsusiturik eta gure pekatuen gurutzea gañean zuela, ta joka zeramatela! Amik atsekabetuena! Aŕen, in-

dazu zure Semearen ta zure atsekabe oyen egizko eŕuki bat, gure pekatuen barkapen ta zure betiko maitasuna aŕki dezadan. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



## BOSGARREN GELDIALDIA

Gurutzea ematen
lagun nai al dezu?
Artuko zaituzte emen.
baldin nai badezu.

Jesus maiteari gurutzea eramaten laguntzeko Zirene'ko Simon artu zuten tokia.

Gogora ekartzazu, kristaua, oñaze bide ontan gure Jesus ain argal

ta nekez zijoalarik judu odolgiroak gurutzearen aztuntasunez ikara ta erořtzeko zorian ikusita, Simon zeritzan Zirene'ko gizon bat Jaunari laguntzeko ařtu zutela, baña ez eřukiz, baizik gurutzeko oñazetan iltzen ikusi nai zutelako.

OTOITZA.

Gure Erosle mai-

tea! gure pekatuen aztuntasuna zure gañean ar̃tu ta gure animen bil̃a ain nekez ibil̃aldi oyetan ibil̃i ziñana, ta Simon'en antzera, Kalbario-bidean zuri jar̃aitzen ta laguntzen erakutsi ziñiguna! Iguzu, ar̃en, Jauna, zure eramankizuna, gure pekatuen damu ta zure atsegiñen

biotzeko eŕuki aundi bat, gurutzea eramaten orain zuri lagundu ta aŕen ondorengoa eduki dezagun zu goratzen zeruan. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



## SEIGARREN GELDIALDIA

Aŕpegiko izeŕdi
eta odoletan
zapi bat bustitzen du
iru alozetan.

Beronika deitzen zioten andre biotz biguñak Jesus onari bere aŕpegia gaŕbitu zion tokia.

Gogora ekaŕtzazu, kristaua, Jaunaren aŕpegia txistuz, odolez eta au-

tsez beterik Beronika Santuak ikusi, ta iru alozeko zapi garbi bat aŕtu, ta guzien artetik saŕtu ta aŕpegia gaŕbitu ziola, ta iru tolesturetan Jaunak bere aŕpegiaren antza oŕen oŕdañez utzi ziola.

OTOITZA.

Nere Jesus, egizko edeŕtasuna-

ren azalkaya! Baldin gure pekatuak ořela itsusitu bazinduzten, orien damuak, zure oñazezko izerdi ta loyak kentzeko zapi gařbiak izan beař dute. Iguzu, Jauna, laguntza, biotzeko negařen bidez gure animak gařbitu ditzagun zure antz bizi bat orietan jositzeko, eta zeruan zure

aŕpegi edeŕa betiko ikusteko.

*Jauna, damu det...*



ZAZPIGARREN GELDIALDIA.

Ementxen erořtzen da
bigařengo aldiz,
ta zu bide gaiztotik
oraindikan zabiltz!

Jesukristo bigařen aldian erori
zan tokia.

Gogora ekartza-
zu, kristaua, gure
Jauna gurutzea-
ren astunak ne-

katu ta guzia aŕgalduta bigaŕen aldian erori ta luŕa jo zuala. Gizagaizto ayek joka jaso zuten, eta Jerusalen galdua Jesus onak utzi zuan auŕera jaŕaituaz.

OTOITZA.

Nere Jesus, eŕukizko Aita, munduaren jabe bakaŕa! Zu sorayo ta ero bat baziña be-

zela, Jerusalen'dik bota zinduzten, ta ořegatik ere eŕi zoriongabe ari eŕukiz begiratu ziñion. Aŕen, Jauna, zure ontasun guztiaz gure animai begira zayezu, ta gurutzea eramaten guk pozik lagunduko dizugu; ta gure pekatuagatik eŕitik bota bazaituzte, guk gure biotze-

tan aŕtuko zaitugu zurekin beti bizitzeko. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



## ZORTZIGARREN GELDIALDIA

Egin pekatuagatik
negaŕ, bai, gogotik,
nere atsekabe danak
ala joaten zaizkit.

Jerusalen'go emakumeai Jesus onak itz egin zien tokia.

Gogora ekaŕtzazu, kristaua, Jesus onak bere nekeen aŕtean lapuŕ

gaizto baten antzera zijoala, eŕukiz ta negaŕez aren ondoren zijoazen emakume onai esan ziela: Jerusalen'go alabak, ez nigatik negaŕ egin, zuen buruagatik baizik, oyen gañera gaitz aundiak etoŕi beaŕ dute-ta.

OTOITZA.

Nere Jesus, artzai ona bezela

gure animen biла ibiлi ziñana, Kalbario-bide gogoŕ aŕtan, ta zure atsekabeen aŕtean ere emakume biotz onai, ta ayetan guri, pekatuagatik beaŕ bezela negaŕ egiten erakutsi ziñiguna! Aŕen, Jauna, aŕgi bizi bat iguzu ardi onen antzera zure dei maitatia aditu ta zuri, artzai onari beze-

la, zuzen beti jaŕaitzeko, eta gure biotzeko negaŕen bidez orain zuri lagundu ta gero gu zeruratzeko deya zure ao gozotik beti betiko entzun dezagun. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



## BERERATZIGARREN GELDIALDIA.

---

O pekatu gaiztoen
alderdi makura!
irugarren aldian
emen jo du lura.

Irugaren aldian Jesus erori zan tokia.

Gogora ekar-
tzazu, kristaua, al-
dapararen igoeran
indarik gabe Je-

sus maitea iruga-
ŕen aldian erori
ta bere aŕpegi e-
deŕa autsez bete
zuala. Jeikinai, ta
ezin; ta etsai go-
goŕak ostikoka,
joka ta deadaŕ-
ez esan zioten: ti-
ra! laxteŕ jaiki,
gurutzean il beaŕ
dezu, an il̄ik iku-
si nai zaitugu!

OTOITZA.

Nere Jesus, Ze-
ruko Jabe maitea!

Zure gurutze ta luŕeko nekeak gogo onez eramatera erabiltzen gaituzu, Jauna! nere gaizkiegiñak dira zu bultzaka ta joka luŕean irugaŕen, aldian erabili zaituztenak: aŕen, iguzu laguntza orien damua egin ta gurutzearen atsekabeak gure gaiztakerien saria bezela aŕtu di-

tzagun; zure oñazeak eta maitetasuna gogoan euki ta oyen sarian Zeruko zoriona betiko aŕki dezagun. Alaxen.

*Jauna, damu det...*

---



## AMARGARREN GELDIALDIA.

Ementxen daukazute
Jesus billotsikan
burutikan beraño
zauriz beterikan.

Jesukristo'ri bere soñekoak kendu zizkioten tokia.

Gogora ekaŕtzazu, kristaua, gizagaizto odoltzale ayek eŕukirik ga-

be Jainkoaren Semeari bere soñekoak lots aundian kendu ta era gaiztoz arri batean jaŕierazo ta beazunez nastutako ardoa eman ziotela. Paŕez eta gaizki esaka gure Jauna emen lotsatu zuten!

OTOITZA.

Nere Jesus, eramankizun miragaŕien azalgaya!

Bai naigabe aundiak zure biotzak aŕtuko zituala munduaren begietan zure soñekoa kendu, zauriak beŕitu ta lotsa goŕian beazuna edateko eman zizutenean. Aŕen, Jauna, iguzu indaŕa pekatu ta zure maitetasunezko soñeko beŕia jazteko ta emengo gezuŕezko atsegin bea-

zunez beteak utzi ta egizko zure atsegiñak aŕkitzeko. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



AMAIKAGARREN GELDIALDIA.

Oñak eta eskuak
iltzez josirikan
emen zegoan Kristo
miñez beterikan.

Jaungoikoaren Semea Gurutzean josi zuten tokia.

Gogora ekaŕtzazu, kristaua, Jesus bildotx ain ixil gure pekatuagatik

eskeñi beaŕ zana, gurutzearen gañean ezaŕi ta indaŕka zañak uŕatuaz iltze gogoŕez josi zutela, ta oriek geyago zapaltzeko Jaunaren gañean jaŕi ta joaldi bakoitzean Ama txit Santuaren biotz biguñaren goŕputzarekin batean uŕatzen zutela.

---

## OTOITZA.

Nere Jesus, pekatuak kentzen dituzun bildotx gaŕbia! Bai, maitasunezko karobi bizian zure biotza orduan egon zala ixil ta pozik zure esku ta oñak gurutzean josteko eman zinduenean! Zure eramankizun onegatik iguzu, Jauna, laguntza gure esku ta oñak

pekatuen kalteak uŕatu, zure bilduŕ ta maitetasunezko iltzez josi, ta zure biotzean beti bizi gaitezen. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



## AMABIGARREN GELDIALDIA

Ementxen Jesus il zan
gizon guzigatik;
oroitu zaite bada
orain eta beti.

Jesus gurutzean jaso ta il zan tokia.

Gogora ekařtzazu, kristaua, gure Jesus, egizko Jaungoiko ta gizona, gurutzean josi ta

jaso zutela, guru-tzean ipintzeko bere zañak luzetu ta eten, mendi santu aŕtan gure Eroslea aidean ageŕturik. Gogoan aŕtu ezazu lapuŕ biren erdian oñaze aŕtean il zala.

OTOITZA.

Nere Jesus, Ama Birjiñaren seme bedeinkatua! Gure barkapeneko eguna au da; ta

zure oñaze ta zauriak, zure negaŕ ta biotzeko deadaŕak Betiko Aitari ori eskatzen diote. Ala izan bedi Jauna, ta gure pekatuak egizko damutasunez gaŕbitu ta zurekin il ta betiko bizi gaitean.

Alaxen.

*Jauna, damu det...*



AMAIRUGARREN GELDIALDIA.

Gurutze gañetikan
bere Amagana,
ementxen jexten dute
Jesus txit laztana.

Gorputz santua jetxi, ta Ama Birjiñari
eman zioten tokia.

Gogora ekaŕtza-
zu, kristaua, gure
Jaunaren oñazeak
eriotzak azkendu

zituela, bañan Ama maitearenak geyago iraun zutela. Gorputz iḻa lantzaz iriki ta Joseta Nikodemus Santuak gurutzetik jetxi ta Amari auŕean ipiñi zioten. ¡Onen oñaze, naigabe ta negaŕak!

OTOITZA.

Nere Ama txit Santua, oñaze ta naigabezko itxaso

ondogabea! Nork esan dezake zure bañenen zer igaro zan zure biotzeko semea ilik besoetan añtu zenduneań. Aren buru, esku ta oñak, ta biotza irikia ikusita, zer min ańtu zenduen. Ańen, bada, gure Amik maitiena, oyetatik iguzu egizko eńuki aundi bat, pekatuen egizko da-

muz, betiko orientzat il ta zurekin Zeruan bizi gaitezen. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



## AMALAUGARREN GELDIALDIA.

Obi berri bat nai du
zure biotzean,
Jesus illak, betiko
zu bizi zaitean.

Obi beŕian Jesus'en gorputza saŕtu
zuten tokia.

Gogora ekaŕtza-
zu, kristaua, atse-
kabezko Amaren
besoetatik nekez

Gorputz Santua Jose ta Nikodemus'ek aŕtu ta izare edo maindire beŕi edeŕ batean egizko Kristo garbiro iguŕtzi eta aŕizko obi beŕian saŕtu zutela. Ama Birjiñaren oñaze ta negaŕ samiñak!

OTOITZA.

Martiri guztien Eŕegiña, samintasunezko geldialdi ontan, Jesus zu-

re maitetasunezko ta oñazezko lorapil̄a bat egin ta zure biotzaren erdian beti gorde zenduena! Zure oñaze berdingabe onegatik, aŕen iguzu zure eskua eta zorionik aundiena, gure atsekabezko bakartasun ontan gure pekatuen damutasunez luŕeko gauzak utzi, ta zure

Seme Jesus ta Zu zeruan beti maitatzeko. Alaxen.

*Jauna, damu det...*



Jesukristo'ren bost zaurien
JARDUERA.

---

Oñazez beteta-
ko nere Ama, zure
semeak nigatik ar-
tu zituan bost zau-
riak zure auŕean
maitatu nai ditut,
ta oriek maitatze-

an zuk eduki zenduan gogo ta maitetasuna beti eduki nai nuke.

*Ezkeŕeko oñeko zauriari.*

---

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz maitatzen zaitut, ta oŕegatik eskatzen dizut, Jauna, nere ibiĺera gaiztoaz egin dizkitzudan gaiztakeri gu-

zien barkapena.

*Aita gurea ta Gloria Patri.*

Eskuiko oñeko zauriari.

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz maitatzen zaitut, eta oŕegatik eskatzen dizut Jauna, nere itz ta egite gaiztoaz egin dizkitzudan gaiztakeri guzien barkapena.

*Aita gurea ta Gloria Patri.*

Ezkeŕeko eskuko zauriari.

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz maitatzen zaitut, eta oŕegatik eskatzen dizut, Jauna, nere begiz ta beste sentzunaz egin dizkitzudan gaiztakeri guzien barkapena.

*Aita gurea ta Gloria Patri.*

Eskuiko eskuko zauriari.

O nere Jesus'en

zauri maitagaŕia! Biotz guztiz maitatzen zaitut, eta oŕegatik eskatzen dizut, Jauna, nere gogoramen, adimen ta nayaz egin dizkitzudan gaiztakeri guzien barkapena.

*Aita gurea ta Gloria Patri.*

FUNDACION SANCHO EL SABIO VITORIA

Sayatzeko zauriari.

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz

maitatzen zaitut, eta ořegatik eskatzen dizut, Jauna, zure biotza lantza gogořaz josi zuten bezela, nere anima ere zure maitetasunez betiko josi dezazula zuri gaitz bat egin baño il nayago detalako. Alaxen.

BOST ZAURIAI

Jabier'tar Franzizko santuak egunero egiten zien otoitza.

---

Nere biotzeko

Jaun eta Jaungoiko Jesukristo, bost zauri gurutzean eta beste ezin kontatu ala zure neke-aldian guganako maitetasunak ar-erazo zizkitzunagatik, eskatzen dizut zure odol ongileaz erosi ginduzunok aŕen, zure ontasunak zaindu eta zure ondora eraman gaitzala. Alaxen.



## Ama Birjiñaren Errosario Santua

beaŕ dan bezela esateko bidea.

Ama Birjiñarekin itz egiten asteko, geldiro ta ondo ziñatu eta *Nere Jesukristo Jauna* biotzetik esan, eta gero Elizak latiñez diona *Dómine*

*labia mea, etc.*, batek asiko du onela:

℣. Jauna, nere ezpañak idiki dituzu.

℟. Eta nere aoak zure gorapenak esango ditu.

℣. Begira zazu Jauna, nere aldez.

℟. Eta atoz laister neri laguntzera.

℣. Gloria Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari.

℟. Asieran bezela betiko guzietan, orain eta beti. A-

ASTELEN-OSTEGUNETARAKO

MISTERIO ATSEGINTSUAK.

---

*Emen Apaizak edo batek eskeintza-esango du: ta gero obeto errezatzeko, ta barkapena irabazteko batek beti Aita gureak ta Agur Maria asi, ta besteak geldiro beti erantzungo dute.*

---



## LENENGO MISTERIOA

Jaungoikoaren Semearen Aragitzea.

---

ESKEINTZA

Jainkoaren Ama aguŕgaŕi ta gure laguntzal̄ea! A-maŕ Aguŕ Mari o-ek eta Aita gure au izan bitez zu-re biotzak aŕtu

zuen atsegiñaren oroipenean, Gabirel Aingeru Santuak beŕi onak ekaŕi, eta Betiko Aitak bere alabatzat, Semeak amatzat eta Espiritu Santuak emaztetzat aŕtu zinduenean; Jaungoikoa zure sabelean gizon egindako misteriorik aŕigaŕien onegatik, aŕen, eskuratu zai-

guzu gure biotzetako zurearen antzekoixiltasun bat gure pekatuaz damutzeko argia Agintari Katolikoen eta oen eŕidietako pakea eta Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

*Emen eta bestietan Aita gure eta amaŕ Agur Mari eŕezatzen dira.*

---



BIGARREN MISTERIOA

Ama Birjiña'k Isabel Deunari egin zion ikustaldia.

---

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta onbide guzien Jabea! Amaŕ Aguŕ Mari oek ta Pater noster au izan bitez zure

biotzak artu zuen atsegiñaren oroipenean, Jaungoikoa zure sabelean artu ta maitetasun bizian zure lengusu Isabel Santua ikustera joan ziñanean bera zeruko ondasunez betetzera, ta Juan Deuna Amaren sabelean santutzera. Zuen Seme bien artean orduan igaro ziran

misterio ezkutatuak ezagutzeko, ta gure animak penitentziaz santutzeko bear dan guzia, aŕen, eskuratu zaiguzu: eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietarako pakea, ta gure Jauna maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

---



IRUGARREN MISTERIOA

Jaungoikoaren Semearen jayotza.

---

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta ondasun guzien ituŕia! Amar Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au izan bitez

Jesus zure sabeleko Semea munduari eman edo jayo, eta trosa garbietan bilduta abereen estrabian eratzen zenduenean zure biotzak artu zuen atsegiñaren oroipenean. Zure seme ta gure Jaun onen jayotza santuagatik gure biotzetako garbitasuna, aŕen, eskuratu zai-

guzu, beraren maitetasunean beŕiro jayo gaitean, eta agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietako pakea ta Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

---



## LAUGARREN MISTERIOA.

Elizara Jesus eramatea.

---

ESKEINTZA

Jaungoikoaren Ama ta garbitasun guztien ontzi edeŕa! Amar Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au izan bitez zure Semea

besoetan bere jartokirik edeŕenean bezela, gu zeruratzeagatik Elizan ezkeñi zenduenean, zure biotzak artu zuen atsegiñaren oroipenean. Misterio onetako argi ta erakuskai edeŕagatik aŕen, gure baŕengo iĺuntasuna kendu, eta Jesus gure zorion guztia ezagutzeko bear dan

argia eman zaiguzu; eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietako pakea, ta Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.



BOSGARREN MISTERIOA

Jesus galduta erakaslien artean Elizan arkitzea.

---

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta anima galduen zeruko bide ezin obea! Amaŕ Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au

izan bitez Ama maitea bezela zure Semearen bila ibili, eta Elizan zeruko Erakaslea bezela, luŕekoai erakasten aŕgitu zenduenean, zure biotzak aŕtu zuen atsegiñaren oroipenean. Jaun au egunero obeto bilatzeko, eta Erakasle onen ikasbidea obeto ikasteko, aŕen, beraren

aŕgi bero bat eskuratu zaiguzu, baita ere gure pekatuen aitortze on bat egiteko beaŕ dan laguntza, eta Agintari Katolikoen eta oyen eŕidietako pakea, eta Jaungoikoa maitatu ta eriotz on baten laguntza. Alaxen.

---



## *Misterio Oñazetsuak*
ASTEARTE-OSTIRALETARAKO

---

### LENENGO MISTERIOA

Jetsemaniko baratzan Jesus maiteak egin zuen otoitza.

---

ESKEINTZA

Jaungoikoaren Ama ta martiri guztien Eŕegiña! Amaŕ Aguŕ Mari

oek eta Aita gure au izan bitez zure biotzeko Semea eriotzarañoko naigakeaz estuturik, odolezko izeŕditan egon zan garayan, zure biotz maitagaŕiak aŕtu zuen oñazearen oroipenean. Zure seme Jesus'ek otoitz aŕtan gure pekatuakgatik eriotzara eskeñi-erazo zuen maitetasun

aundiagatik, aŕen, gure pekatuen egizko damu bat eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕiditetako pakea, eta gure Jauna, maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

———



BIGARREN MISTERIOA.

Gure Jesus, ari bati loturik, zigorez joa izan zan.

---

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta eramankizunaren erakusbidea! Amar Agur Mari oyek ta Aita gure au izan bitez

zure Seme edeŕa beresoñekoak lotsaundiz kendu, zigoŕez uŕatu, ta odoletan zijuanean zure biotz maitatiak aŕtu zuen oñaze aundiaren oroipenean. Zure semearen aŕigaŕizko eramankizun ta maitetasun onegatik, aŕen, gure pekatuen soñeko zaŕ itsusia kentzeko, ta oek ira-

bazi duten zigoŕaldia ixilik eramateko eskuratu zaiguzu biotz on bat, eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietarako pakea, ta gure Jauna maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.



IRUGARREN MISTERIOA

Jesus onari arantzezko koroa josten diote.

---

ESKEINTZA.

Jainkoaren Ama ta naigabez betetako guzien alaigařia! Amař Aguř Mari oyek eta Aita gure au

izan bitez zure Seme Jesus, guzien egizko Jaunari, bere buru deuna arantzez josi zioteneań zure biotzak ańtu zuan ezin esan alako oñazearen oroipenean. Gure pekatuen eriotzako arantz oriek berari ta zuri eman zizuten oñaze gogoŕagatik, ańen, gure pekatuen ondor-

engo arantzak ta nekeak ondo eramateko beaŕ degun eramankizuna eskuratu zaiguzu; eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietako pakea, ta gure Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

---



LAUGARREN MISTERIOA.

Gurutzea bere gañean artu ta Kalbario'ra eramaten dute.

---

ESKEINTZA

Jaungoikoaren Ama eta luŕean bidez galduen argi edeŕa! Amaŕ Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au

izan bitez Kalbario'ko bidean zure Semea gure pekatuen aztuntasuna Gurutzean zeramala, ta nekeaz aren azpian erortzen ikusi zenduenean zure biotz ixillak artu zuan berdingabeko oñazien oroipenean. Jesus maiteak ta zuk Betiko Aitari idukiziñioten maitetasunagatik, ar-

en, eskuratu zaiguzu gure gurutze ta nekien artean aren nayari zuen ondoren jaraitzeko gogo on ta ixil bat; eta Agintari Katolikoen eta oyen Eridietako pakea, eta gure Jauna maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

---



## BOSGARREN MISTERIOA

Jaungoikoaren Semea gurutzean josia izan zan.

---

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama, ta oñazien ondogabeko itxasoa! Amaŕ Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au izan bitez zure sabelean

soŕtua, gu salbatzeagatik Gurutzean josia ikusi, ta negaŕez ta odola zeriola gugatik eskatzen, ta illik aren biotza lantza gogoŕaz idikitzen ikusi,eta zure biotzak aŕtu zuen oñazearen oroipenean. Zure Semearen Gurutzeko oñaze ta maitetasun guziagatik, aŕen,eskuratu zaiguzu gu-

re neke ta gogo eragabe guziak Gurutzean jositzeko onbidea, eta biotzeko damuaz aitořtze on bat egiteko beař dan guzia Agintari Katolikoen eta oyen eřidietako pakea, Jaungoikoa maitatzeko osasuna, eta eriotz on bat izateko laguntza. Alaxen.



## MISTERIO ZORIONTSUAK.

IGANDE, ASTEAZKEN ETA LARUNBATETARAKO

---

### LENENGO MISTERIOA

Jesukristo'ren Berpiztea

---

ESKEINTZA

Jaungoikoaren Ama ta Aingeruen Eŕegiña! Amaŕ Aguŕ Mari oyek ta

Aita gure au izan bitez zure Semea, zorionez beterik, Aingeru ta Santuen aŕtean pizturik, zu ikustera, eta igarotako atsekabeak bere zorionez aztuerazotzera etoŕi zanean, zure biotzak aŕtu zuen zeruko pozaren oroipenean. Zorionezko Misterio onegatik, aŕen, biotz garbitu ba-

ten poza eskuratu zaiguzu; eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietarako pake, eta gure Jauna maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.



BIGARREN MISTERIOA.

Jesuskristo'ren zerura igotzea.

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta zeruko ate ederra! Amaŕ Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au izan bitez, zure Seme Jauna, zeruetara

igotzen ikusi zenduenean zure biotzak aŕtu zuen pozaren oroipenean. Jesus maiteak, Betiko Aitaren eskubi-aldean jarririk, duen almen guziagatik, aŕen, zure bitaŕtez gure biotzak luŕeko nekien aŕtean beragana beti jasotzeko laguntza eskuratu zaiguzu, zurekin batean bera

ikusteko ta goratzeko; Agintari Katolikoen eta oyen eŕidietarako pakea, eta Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

———



## IRUGARREN MISTERIOA

Espiritu Santuaren etorrera.

---

ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta gure argi edeŕaren Ama txit santua! Amaŕ Aguŕ Mari oyek ta Aita gure au izan bitez Eliz

Santuaren argi ta atsegiñerako Espiritu Deuna Semeak Aitagandik bialdu zuenean, eta zure anima beste guzienak baño geyago bere eskaŕ edeŕez ta zorionekoondasunez bete zuenean, zure biotzak aŕtu zuen pozaren oroipenean: Aŕen, Espiritu pozkidatzale onen su gaŕ bizi

bat, zure biotzeko ontzi garbian bezela, bera ezagutzeko ta maitatzeko eskuratu zaiguzu; eta Agintari Katolikoen eta oyen Eŕidietako pakea, eta Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

---



## LAUGARREN MISTERIOA.

Birjiña Amaren zerura igotzea.

---

ESKEINTZA

Jaungoikoaren Ama ta pekatarien laguntzalea! Amaŕ Aguŕ Mari oyek eta Aita gure au izan bitez, maitetasun gozoz-

ko zure eriotz ongiĺearen, eta piztu ta zorionez jantzirik, Aingeruen erdian zeruetara igo ziñaneko zorion berdingabearen oroipenean. Zerutaŕ guztiak, orduan aŕtu zuten atsegin aundiagatik, aŕen, zure babesean bizi geran pekatarioi gure eriotzako garayan lagundu zaiguzu,

zure eskuetan eta Jaunaren laguntzan gure anima eman, eta zu ikustera betiko igo gaitean zerura; eta Agintari Katolikoen eta oyen eŕidietako pakea, ta gure Jaungoikoa maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

———



## BOSGARREN MISTERIOA

Maria guztiz santuaren koroatzea eta Santu guzien zoriona.

---

### ESKEINTZA.

Jaungoikoaren Ama ta Aingeru ta Santu guzien Koroirik ederena! Amar Agur Mari oyek eta Aita gure au izan bitez,

Irukoitz edo Trinidade txit santuak esan ala baño zorion aundiagoaz, Aingeru guziak baño gorago igo, eta eman zizun aunditasun guziz goituaren oroipenean. Zuk or goyen dituzun zorionezko ondasun guziagatik; aŕen, eskuratu zaiguzu luŕeko gauzak oinpean utzita

zerukoak zure ondoren eta Zu ikusi ańtean bil̄atzea, eta ořetarako Jaunarekin batean pekatuen egizko damuz guzien aitořtze on bat egitea, eta Agintari Katolikoen eta oen Eřidietako pakea, ta Jaungoikoa beti maitatzeko osasuna ta laguntza. Alaxen.

## *Ama Birjiñaren Letania euzkeraz.*

---

Jauna, eŕuki zaite.
Kristo, eŕuki zaite.
Jauna, eŕuki zaite.
Kristo, adi gaitzazu.
Kristo, entzun gaitzazu.
Zeruko Aita Jaungoikoa,
*Eŕuki zaite gutzaz.*

Munduaren Eroslearen Seme Jaungoikoa,
*Eŕuki zaite gutzaz.*

Espiritu Santu Jaungoikoa,
*Eŕuki zaite gutzaz.*

Jaungoiko bat zeran Irukoitz Santua,
*Eŕuki zaite gutzaz.*

Maria Santua,
Jaungoikoaren Ama Santua,
Birjiñen Birjiña Santua,
Kristoren Ama,
Jainkozko eskaŕaren Ama,
Ama guztiz garbia,

Eskatu gure aldez

Ama guztiz txukuna,
Birjiña zeralarik Ama,
Kutsurik gabeko Ama,
Ama sortzetik garbia,
Ama maitagaŕia,
Ama aŕigaŕia,
Erakusbide oneko Ama,
Egilearen Ama,
Eroslearen Ama,
Birjiña guztiz begiratua,
Birjiña goragaŕia,
Birjiña gogoragaŕia
Esku aundiko Birjiña,
Birjiña biotz biguña,
Birjiña zintzoa,
Birtute guztien agerkaya,
Jakintzaren eserlekua,
[illegible]e poz emalea,
[illegible]ozko ontzia,
[illegible] begiragaŕia,
[illegible]tasun-ontzi aundia,
[illegible]osa aŕigaŕia,
[illegible]abid'en Toŕea,
Bolizko Toŕea,
Uŕezko etxea,
Sinismenaren kutxa,
Zeruko atea,
Eguntxintako izaŕa,
Gaxoen osasuna,
Pekatarien babestokia,
Laŕituen poza,
Kristauen laguntzalea,

Eskatu gure aldez

Aingeruen Eŕegiña,
Eŕkaben Eŕegiña,
Igaŕlien Eŕegiña,
Bialduen Eŕegiña,
Martirien Eŕegiña,
Aitoŕlien Eŕegiña,
Birjiñen Eŕegiña,
Santu guztien Eŕegiña,
Jatoŕiz kutsugabe soŕtutako Eŕegiña,
Eŕosario txit deuneko Eŕegiña,
Pakearen Eŕegiña,

Eskatu gure aldez

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren bildotxa,

*Barka eiguzu, Jauna.*

Munduku pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren bildotxa,

*Entzun gaitzazu Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren bildotxa,

*Gutzaz eŕuki zaite.*

℣. Jaungoikoaren Ama Santua gure aldez eskatu ezazu.

℟. *Kristoren aginduak iritxi ditzagun.*

---

OTOITZA.

Eskatzen dizugu, Jauna, gure biotzetan zure laguntza ixuri dezazula, Kristo zure Semea gizon egin zala Aingeruaren aotik jakin degunezkero, aren neke-oñaze eta gurutzearen bidez piztuetarako zorionera eramanak izan gaitezen Kristo

gure Jaun beraren irabazien bidez. A-la gerta dedilla.



## Jose Santu Zoriontsuari Eskaera.

Jose Santu gloritsua, Ama Birjiñaren Senar bedeinkatua, nik eskatzen dizut lagundu nazazula, ¡ batez ere eriotzako garayan zu bitarteko izanik onak izan diranen eriotza izan dezadan.

*Aita gurea eta Agur Maria.*



*Padua'ko Antonio Santua'r-*
*enganako*
JARDUERA.

---

Sinismendunak AntonioSantuaganako duten maitasuna beti izandu da txit aundia, be-

ragan beste asko ez bezela Jaungoikoak maitatu duen Santu aundi bat guztiak ikusten dutelako. Goratuak izandu dira beti bere ontasunak, bere ixiltasun aundia, bere garbitasun aingerukoa, Jesus-auŕaganako bere maitetasun biguña, Aldareko Sakramentu guztiz santuaga-

nako bere sinismen irazekia, animak zeruratzeko bere gogo bizia, gaiztoak bide onera ekaŕi erazotzeko bere biotz indaŕtsua eta onela zan egiaz, aek izan zezatekean etsairik gogoŕena: emendik datoz Santu onen ainbesterañoko nekeak eta berak egindako gauz aŕigaŕiak,

oyek egiten zituan luŕean, eŕiz-eŕi zebileneanean, eta egiten ditu orain zeruan Jaungoikoarekin bizi dala ere. Bera da, sinismen eta gogo onez deitzen dioten guzien pozgaŕia: aren bitaŕtez arkitzen dituzte galdutako gauzak, bai iritxi ere gorputzerako eta animarako, mundu

ontako eta besterako beaŕ duten guztia.

Antonio Santua maitatzen dutenak egiten diozkaten eskeintz aŕtean gogokoenetako bat da, beraren onbideak jaŕaituaz gañera, Irukoitz (Trinidade) guztiz Santuari eŕezatzea iru *Aita gure* eta iru *Agur Mari*, eman zioz-

kan eskaŕ ta ornitu zuen doayakgatik eta Maria txit Santuari, Jesusauŕari eta Aldareko Sakramentu guztiz maitagaŕiari izan zien maitetasunaren oroipenean.

OTOITZA.

---

Nere Aita Antonio Santua; zuk maite-maite izan zenduen Jaunaga-

tik eta zure besoetan ainbeste biderŕ izan zenduen ume-Jesus'gatik, orain eskatzen dizudan onetan lagundu eta ontaŕtuko nazulako uste osoa beti izan det. Bizitzan eta eriotzan egin ziñituen gauz aŕigaŕiakgatik nai nuke eskatzen dizudana, baldin Jesukristo gure Jau-

# naren gogokoa izan beaŕ ba-du, iritxi zaidazula.

Orain egiten da eskaria, eta gero eŕezatzen da *Aita gure* bat.



*Jesus'en biotzari bere azken-asnasetan eskaera.*

Gure animak ainbeste maite dituzun Jesus guziz eŕukitsua! Zure Biotz guziz onaren azken-asnas ta zu-

re Ama guziz garbiaren oñazeakgatik eskatzen dizut mundu guzian azken · asnasetan dauden eta gauŕ il beaŕ duten pekatariak zure odoletan garbitu ditzazula. Alaxen.

Iltzeko zorian egondu ziñan Jesus'en Biotza: iltzen daudenaz eŕuki zaite.

**Jesus'ek bere biotzaren zaleai egin dizkien aginduak.**

---

Lenengoa: Beren izaeŕako beaŕak betetzeko la-

guntz ugariak emango dizkiet.

Bigarrena: Beren etxietan pakea jaŕiko det.

Irugaŕena: Beren atsekabietan poztuko ditut.

Laugaŕena: Beren bizitza guzian eta eriotzako garayan babespetuko ditut.

Bosgaŕena: Beren lanbide guzien gañera bedeinka-

pen ugariak ixuriko ditut.

Seigarŕena: Pekatariak nere Biotzean eŕukiaren ituŕi ta ondogabeko itxasoa arkituko dute.

Zazpigarŕena: Maitetasunean epel dauden animak berotuko ditut.

Zortzigarŕena: Maitetasunean bero daudenak igo-

ko dira santutasunik goyenera.

Bederatzigaŕena: Nere Biotza maitatzen dutenen etxeak bedeinkatuko ditut.

Amargaŕena: Biotzik gogoŕenak biguntzeko laguntza apaizai emango diet.

Amaikagaŕena: Maitetasun au zabaltzen duten guzien izenak ne-

re Biotzean edukiko ditut.

Amabigaŕena: Urtearen lenengo bederatzi ostiraletan, jaŕaituan, beaŕ bezela Jauna aŕtzen dutenak itxegon dezakete Jaungoikoaren laguntzan iltzea, eta Jauna aŕtugabe ilko ez diran uste osoan oek egon ditezke.

---

*Eriak sendaitzen danean egingo duen otoitza.*

Eskeŕak ematen dizkizut, nere Jaungoikoa, izan detan gaitz eta ostera eman didazun osasunagatik. Ez dezu nai izan ni iltzea, eta gaxotu ba-nazu, nere osasun ta bizi guztia zurea dala oaŕtuerazotzeko izandu da, eta beragatik eginkizun on

ta zuzenetan bai-
zik bizitza ibiḷi
beaŕ det. Emendik
auŕera, bada ne-
re Aita ta Jaun-
goikoa, zure jain-
kozko laguntza ba-
detez naizokeŕ ibi-
ḷiko. Egizu, Jau-
na, kendu didazun
gaitza ez dezada-
la aztu, eta ez de-
diḷa nigan geitu
bizitzari maiteta-
suna, nik dauka-
ten asmoa, emen-

dik auŕera ondo bizi, daınutasuna izan ta Jauna maiz aŕtu ta eŕukizko egintzak egiten aritzea, aztuarazi ez dezadan.

*Oarkera.* Eria etxetik irten ditekean bezin laisteŕ Meza santua entzutera joango da, eta Jainkoari eskeŕ onak ematekoko aitoŕtu ondoren Jauna aŕtuko du.

## Irukoitz edo Trinidade guztiz Santuari Trisajioa.

### Trisajioren sortzea.

Trisajio guztiz Santuaren jarduera ez da gizonak bere buruz sortutakoa, Jainko beraren egintza bat baizik, berak Egillea goratzeko aingeruak nola kantatzen zioten aditu zuenean Isaias igarleari somaerazo ziolako.

Elizak esaten digunez, Aingeruen ikastetxean ikasi zuen, zeruetarabat batetan Paulo Santua bezela jasoa izan zan auŕak: Teodosio Gaztea Sort-aldeko agintari zan garayan, Jesukristo'ren jayotzatik 447'gaŕen urtean, toki askotan oaŕtu zan luŕikara txit aundi bat bai bere

iraupenagatik ta baita ere erakaŕi zituenondapenizugaŕiakgatik arteraño ikusi izan ziranetan gogoangaŕiena egin zana, sei iłabete aldean iraun zuen, eta bien bitaŕtean Konstantinopla-uriko etxe galantenetan eta Kersoneso'ko muŕu sendoguztianegindako kalteak, ezin

esan alakoak izandu ziran. Toki askotan luŕa idiki zan, eta bere eŕayetan uri osoak ondatuak gelditu ziran: ituŕiak toki batzuetan agoŕtu, eta besteetan beŕiak agertzen ziran: luŕ-ikaren zartatekoak indaŕtsuak ziran, zuaitzik aundienak zuztrayetatik ateratzeraño lenago

eŕiberak ziran tokietan mendiak, eta mendiak baizik etziranetan leize-zulo aundiak agertzen ziran. Itxasoak ubazteŕetara botatzen zituen aŕaitzaŕ aundiak, eta urak legoŕean utzirik itsas bazteŕ eta ontziak, estaltzera zijoazen ugaŕte aundiak.

Onelako estuta-

sunean eŕietatik aldegitea gauzik onena zala uste izan zan; eta ala egin zuten Konstantinopla'ko biztanleak Teodosio agintariarekin, onen aŕeba Pulkeria, Prokolo Santua ango obispo eta bere elizgizon guztiakin batean. Bildurik Kanpo zeritzan toki batean, eskaera ira-

zeki ta deadaŕa undiak zuzentzen zituzten zerurontz laguntz-eske estutasun ain laŕian: baña egun batean goizeko zortzietatik bederatzien tartean luŕak eman zuen astindua izan zan oi ezbezelakoa, ta gutxik egin zuen, beŕitu etzituela antziñako ugoldeak erakaŕi zituan

ondapenak. Ikaratze onen ondoren ikusi zan, guztiak aŕiturik utzi zituen gertakari au: bat batetanaidean jasoa izan zan urte gutxiko mutiltxo bat, Kanpo'n zeuden guztiak gorontz nola zijoan begira zegozkiotela, aliketa begietatik ezkutatatu zitzayoteneraño. Zerbait bitarte igaro-

takoan, lurera je-
txi zan, zerura ja-
soa izan zan era
berean; bereala e-
raman zuten Obis-
po, Agintari ta o-
raindik osotoro
aritua zegoen gi-
zataldearen aur-
era eta esan zien
zeruan arkitu izan
zala, ta Aingeruai
aditu ziela kanta-
tzen onako itz oek:
*Jaungoiko Santua,
Jaungoiko indar-*

*tsua, Jaungoiko illezkorra: izan ezazu gutzaz errukipena*, eta an bildurik zeuden guztiai ikuskera onen beŕia emateko agindu zitzayola. Auŕa, itz oek esan da, il zan.

Gertakari au aditutakoan, Prokolo Santuak eta agintariak agindu zuten kanta au antxe guztiak ba-

tean kanta zezatela, eta luŕikara bertatik bukatu, eta luŕ guztiak gelditu ziran. Emendik asiera izan zuen aldi estu ta negargaŕietan Irukoitz guztiz Santuari deitzeko, Kalzedonia'ko Konzilio edo batzaŕeak kristau sinismendunai eskabidetzat jaŕi zien Trisajioaren

jarduerak; emendik datoŕ Obispo askok jarduera au barkapen ugariz aberastuaz ontzat emana izatea; eta emendik azkenik datoŕ, jarduera au egoki jaŕia, ainbeste bideŕ eta beti guztien baimen eta poz aundiz argitaratua izana, begiratuaz Jaungoikoak gure pekatuak zigoŕez jo-

tzeko lurera bialtzen dituen gaitz guztien sendagai bat bezela.

Trisajioa errezatzen dan guztian barkapenak irabazteko eskeintza.

Eskatzen dizugu, Jauna, Elizsantu eta bere zuzentzallien aldez; sinismen santua geyago eta geyago zabaldu dedin, erejeak akendu ditezen, agintari katolikoen artean pake ta elkartasuna izan dedin, sinismengabe ta

pekatari guztiak itzuli ditezen, iltzen dauden eta bidean dabiltzanen aldez, eta gure Ama Eliza santuaren gañerako bear onen aldez. Alaxen.

℣. Irukoitz santua eta bat dana bedeinkatua izan bedi, orain, eta beti, eta eunki guztien eunkietan.

℟. Jauna nere ezpañak idiki itzazu.

℟. Eta nere aoak zu goratuko zaitu.

℣. Nere Jaungoikoa maitetasunezko begirapen bat egidazu.

℟. Jauna, laisterka lagundu nazazu.

℣ Gloria Aitari.

Gloria Betiko Semeari.

Gloria Espiritu Santuari.

Eunkiguztien eunkietan.

℟. Alaxen, Aleluya.

Garizuman esaten da:

GorapenakZuri, betiko zorionaren Jaun ta jabe zeran orri.

*Damu-egintza.*

---

Iru personetan Jaun guztiz maitagarri bat zeran Aita, Semea e-

ta Espiritu Santua Zugan sinisten det, Zugan uste det, eta Zu maitatzen zaitut nere biotz guztiz, nere gorputz, gogo ta zentzun guztiz: Zu, nere Aita, nere Jabea, ta nere Jaungoiko ezin geyago ona zeralako, eta gauza guztiz gain maitatua izan bear dezulako damu det, Irukoitz guztiz Santua, damu det, Irukoitz guztiz maitagarria zerana izanagatik, bakarrik Zuri kalte egiña; erabakia daukat, eta itz

ematen dizut egundaño geyago kalterik egingo eztizudala, eta berriz pekatu egin baño lenago ilko naizela: uste osoa daukat zure ontasun guztiz aundi ta neurrigabeko errukiaren bidez, nere oker guztiak barkatuko dizkidatzula eta Irukoitz guztiz maitagarriaren egizko maitetasunean irauteko zure laguntza emango didazula.

*Aitari otoitza.*

Betiko Aita! nik

ez det ikusten toki guztietan illuntasun ta atsekabea baizik Zu ez bazauzkat, besterik badiote ere mundu-jarraileak.

Zer dit neri gogo loyetan etziña dagoenak esatea, aragiaren atsegiñak gozatzea dala bere zorion guztia?

Zer dit, aundinai batek orobat esan dezala, nai duen zoriona gozatzea dala bere atsegiñik aundiena? ni beintzat dagokidan aldetik beti ariko naitzatzu esa-

ten zure Igarle ta Apostoloakin batean, nere zorionik aundiena, nere ondasun eta zorion guztia nere Jaungoikoari bat egitea ta beti bere ondoan iñoiz ere aldegin gabe egotea dalako.

(Aita gure ta Agur Mari bat, eta gero bederatzi bider:)

Santua, Santua, Santua, gudaritaldien Jaun Jaungoikoa, zeru-lurrak zure zorionez beteak daude.

(Eta guztiak erantzuten dute:)

Aintza Aitari, aintza Semeari, aintza Espiritu Santuari.

*Semeari otoitza.*

---

Betiko egia; zu kenduezkero gezurra beste gauzik nik ikusten ez det. Guztia iduritzen zait samiña zure biguntasunaren aldean! Bai gezurtiak eta itxusiak deritzaizkidala gizonen jolasak, aditzen zaituztenen biotzetara zuzentzen dieztezun bizitzako itzen aldean! A! noiz elduko da estalki ta

irudipen gabe artuko nazun garaya, eta zure zorioneko atsedentokian garbiro itz egingo didazuna? ori edertasuna! ori argitasuna!

(Aita gure ta Agur Mari bat, eta gero bederatzi bider:)

Santua, Santua, Santua...

*Espiritu Santuari otoitza.*

---

Jaun guztiaz aundiaren poz ta Jainko beraren atsegiñen eta zoriontasunaren biltokia: bai atsegin dala anima ba-

tentzat zure ontasunaren leize ondo-gabean egotea! Gezurrezko atsegiñak! zer ikusi bear dezute zuek Jaungoikoak anima zintzo batean, on deritzayonean ixuritzen dakien gozotasunik txikienaren aldean? Oetako apur bat ain gozoa baldin bada, zenbait gozoagoak izango ez dira ugaldea bezela neurri gabe eta guztiz oparo zuk ixuriko dituzunean? noiz izango da au, nere Jaungoikoa, noiz?

*Abestitxoa.*

Zu Aita Jaungoiko sortu gabea. Zu Seme bakar sortua, Zu Espiritu Santu pozemallea, Irukoitz Deuna eta bereziezińa biotz guztiz aitortzen, goratzen eta bedeinkatzen zaitugu. Zoriona dagizula Zuri eunkietan.

℣. Bedeinkatu dezagun Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua.

℟. Goratu eta jaso dezagun betiko.

## OTOITZA.

Iru personetan Jaungoiko bakar bat zeran Jauna, zure laguntza zure maitetasun eta zurekiko elkartasuna betiro iguzu, mundu ontan eta bestean maitatu ta gure biotza eman dezagun Zuri Aita Jaungoiko, eta Espiritu Santu Jaungoikoari, Jainkotasunean bizi zeralako betiko. Alaxen.



*Maria txit Santuaren oñazien*
ZAZPIURRENA

---

### Damu-egintza.

Nere Jesukristo Jauna, égizko Jaungoiko ta gizona. Zu zeranaizanagatik, on-

tasun azkengabea, damu det zuri kalte egiña; artzen det geyago okerrik ez egiteko asmoa; ta zure Ama ainbeste oñazien aizto zorrotzez atsekabetuagatik, zure kaltez egin ditudan pekatuak, uste det barkatuko dizkidazula, emanaz eskerrak zure laguntzan ta zure oñazezko Amarenean irauteko eriotzarano. Alaxen.

OTOITZA.

---

Birjiña Maria, oñazezko Ama, mun-

duko Ama guztiak baño atsekabetuagoa! auzpezturik zure oñetan zure oñaze ta zure Seme maite gurutzean josiagatik, eskatzen dizut iritxi zaidazula nere okerren barkapena, geyago pekaturik ez egiteko eskerra, ta zure zazpi oñaze aundiagatik agur egitea eskatzen dizudan laguntza.

### Lenengo oñazea

Lenengo oñazea izan zuan Birjiñak bere Semea elizara eramatean.

---

Ama naigabetua! Zure semea Elizara

eraman zenduanean izan zenduan oñazeagatik eskatzen dizut, indazula damutasunaz nere anima garbitzeko laguntza, zerura eraman dezadan artean.

*Aita gurea ta Agur Maria.*

Bigarren oñazea

Bigaŕen oñazea izan zuan Birjiñak Erodes'engandik igesi zebiltzanean.

---

Ama oñazetsua! Nazaret'etik Ejito'ra zure Semearekin igesi zijoazenean izan zenduan oñazeagatik, eskatzen dizut, indazula laguntza egizko damutasunaz eta as-

mo sendoz iges-egin dezadan Jaungoikoa'ri kalte egiteko zori txar guztietatik.

*Aita gurea ta Agur Maria.*

## Irugarren oñazea

Irugaŕen oñazea izan zuan Birjiñak bere Semearen bil̄a zebil̄enean.

---

Ama naigabez betea! Semea galdu zitzaizunean iduki zenduan oñazeagatik eskatzen dizut indazula laguntza nere pekatuen egizgo oñazez ibilli nadin Jesus'en billa, alik eta nere biotzean eduki dezan artean.

*Aita gurea ta Agur Maria.*

## Laugarren oñazea

Laugaŕen oñazea izan zuan Birjiñak bere Semea gurutzea zeramala ikustean.

---

Ama naigabetua! zure Semea samintasunez beterik nere pekatuen gurutze gogorra eramanik ikustean iduki zenduan oñazeagatik eskatzen dizut, indazula laguntza berari jarraitu deyodan, nere bizikerako gurutzea eramankizunez eramateko.

*Aita gurea ta Agur Maria.*

## Bosgarren oñazea

Bosgaŕen oñazea izan zuan Birjiñak bere Semearen gorputza gurutziltzatzen ikusi zuenean.

---

Ama naigabetua! zure Semea gurutziltzaten iduki zenduen oñazeagatik: eskatzen dizut, indazula laguntza nere griña ta gogo gaiztoak zuzentzeko Jesus'i jarraituaz.

*Aita gurea ta agur Maria.*

## Seigarren oñazea

Seigarren oñazea izan zuan Birjiñak gurutzearen oñean Semea besoetan zeukan bitartean.

---

Ama ondo minberatua! zure Semearen

gorputz zauritua zure besoetan zeukazunean izan zenduan oñazeagatik, eskatzen dizut, indazula laguntza, egizko gogo onez Jauna artu dezan eta beti zure Semearen gorputza biotz garbiaz artu dezadan.

*Aita gurea ta Agur Maria.*

## Zazpigarren oñazea

Zazpigaŕen oñazea izan zuan Birjiñak bere Semearen gorputza obiraturik utzi zuenean.

---

Ama naigabetua! zure Semea obiratzekoan izan zenduan oñazeagatik eskatzen dizut, indazula lagun-

tza iraupenaz gorrotatu ditzadan pekatuak, munduko lasaikerietarako illa eta Jesukristo'rekin obiraturik bizi nadin.

*Aita gurea ta Agur Maria.*

(Bakoitzak eska dezala bear duena, eta on zayona.)

## OTOITZA.

Oñazez betetako Ama! Jaunagan gurutzearen oñean animazko bizitza eman ziguzunezkero, zure oñaze samin oyetatik eman zaidazu aditzeera, ziñez maite nazun Ama zerala, eta iritxi didazula eska-

tzen dizudan laguntza beti bizi nadin zure Semearen mendean bera zeruan goratzea irabazi arte. Alaxen.



:-: JOSE SANTUAREN :-:
oñaze ta pozen zazpi-
:-: :-: urrena :-: :-:

DAMU-EGINTZA.

Jesukristo nere Jauna, egizko Jaungoiko ta gizona, azkengabeko ontasuna zerana Zu izanagatik, Zuri kalte egiña damu det eta zure laguntzaz ez geyago okerrik egiteko asmoa artzen det; zure aita Jose Santuaren oñaze ta pozen izenean uste det iritxiko dedala, zure

laguntzan irautea zeruan goratu zaitzadan.

OTOITZA.

O zorioneko Jose Santua! Nere utsegiñen barkapena iritxi zadazula eskatzen dizut, geyago okerrik ez egiteko eskerra, eta eskatzen dizudan laguntza, zure zazpi oñaze ta pozen izenean agur egiñaz.

Lendabiziko oñaze ta poza.

Jose ona! Zure Emazte maitea aurdun ikusirik izan zenduen

oñezeagatik ta Aingeruak ez uzteko eman zizun gaztigu gozoaz izan zenduan pozagatik eskatzen dizut, urkoarenganako egin ditudan uste txarrak gorrotatu ditzadala, nere anima onela garbitzeko.

*Aita gure, Agur Maria ta Gloria Patri.*

Bigarren oñaze ta poza.

---

Jose ona! beartasun aundienean Jesus jayotzen ikusi zenduenean izan zenduan oñazeagatik, eta artzai ta Erregeak goratua ikustean izan

zenduan pozagatik, eskatzen dizut, iritxi zaidazula nik nere arrokeriz egin dituen kaltien damuba, ta apaltasun ta ixiltasunez zu maitatzeko biotza.

*Aita gurea.....*

Irugarren oñaze ta poza.

---

Jose ona! zure Semea lenbiziko odoltantoak ixurtzen ikusi zenduenean izan zenduan oñazeagatik eta Jesus izen gozoa jarri zitzayola aditzean artu zenduan pozagatik, eskatzen

dizut iritxi zadazula nere griña txarrak uzteko edo menderatzeko laguntza, eta eskuratu zaidazula nere anima Salbatzallearen odolez garbitzeko zoria.

*Aita gurea.....*

Laugarren oñaze ta poza.

Jose ona! Jesus'en eriotza Simeon'ek aurrez aditzera eman zuanean zuk izan zenduan oñazeagatik, eta gu irabazteagatik ilko zala jakitean artu zenduan pozagatik, eskatzen dizut iritxi

zaidazula damua nere pekatuakgatik gurutziltzatua izandu dalako, eta alaitasuna beraren oñazeak jarraituaz ibilli nadin.

*Aita gurea.....*

## Bosgarren oñaze ta poza

Jose ona! zure Jesus maiteari, Erodes'ek bizia kendu nai ziola jakitean izan zenduan oñazeagatik eta Aingeruak Ejito'n ezkutatu zenezakela aditzera eman zizunean artu zenduan pozagatik, eska-

tzen dizut iritxi zadazula nere gaiztakeriz animetan egin ditudan gaitzen damua, ta emendik aurrerako nere egite onaz pekatariyai ikasbidea emateko zoria.

*Aita gurea.....*

Seigarren oñaze ta poza.

Jose ona! maitetasun aundienaz Israel'ko lurrera zijoazen garayan Jesus'i kalte egingo ote zioten eraman zenduen beldurragatik eta Nazaret'a joan zindezela aditzera eman zizute-

nean izan zenduen pozagatik, eskatzen dizut iritxi zaidazula beldurrezko laguntza, damuturik Jaungoikoa'gana; eta eman zaidazula indarra, ikara galtzeko eta bear dituan onbideak jarraitzeko.

*Aita gurea.....*

**Zazpigarren oñaze ta poza.**

---

Jose ona! Jesus'engandik urruti egon ziñan garayan izan zenduan oñazeagatik eta elizan erakusten ikusita izan zenduan pozagatik, eskatzen

dizut, eskuratu zaidazula nere okerrez egin dizkadan kaltien barkapena, eta zorion guziak arkitzeko, sarritan Sakramentuak arturik, bera galtzeko bidietatik aldegin dezadan.

*Aita gurea.....*

(Orain eskatuko dio Jose Santuari ondo dagokion laguntza.)

OTOITZA.

---

Jose txit santua, Birjiña Mariaren egizko senarra, ta Jesus gure eroslearen ait-ustekoa: eskatzen dizut, nere Santua, iritxi deyezula ezkon-

gayai garbitasuna; alargunai zintzotasuna; jakintasuna agindu bear dutenai; laguntza, bearrean daudenai; iraupena, sinistedunai, eta guztiok iritxi dezagula zure emazte maite Maria txit santuaren zaleak izatea, zure ta beraren laguntzaz geren etsayak Jesus'en ontasunagatik garaitu ditzagun, baita ere zazpiurren ontan eskatu ditugun eskerrak artzea, menderatu ditzagun gure animak, eskuratu artean

eriotza on bana eta Jaungoikoa'z betikotasun guztian izatea. Alaxen.

## URRIKO ILLAN

Errosario Santu ondoren XIII'garren Leon Aita Santuak Jose Santuari egiteko agindu zuen.

## OTOITZA.

Zugana gatoz, gure estutasunean, Jose zintzua, eta zure emazte txit santuaren laguntzaren ondoren; zure laguntz ori uste osoaz eskatzen dizugu, Jainkoa'ren Ama Maria Birjiña kutsugabearekin bat egin zinduen maitetasunagatik, eta Jesus-Aurra laztandu zen-

duen naitasun biguñagatik, apalki eskatzen dizugu Jesukristo'k bere odolez irabazitakoai errukiz begiratu deyozula eta zure laguntzaz estali ditzazula gure bear guziak.

Sendi Sagraduaren zaintzalle txit begiratua! zaindu ezazu Jesukristo'ren ondoren autua. ayenatu gugandik utsegite ta gaiztakerizko kutsu guziak; zerutik, begi onez begiraturik, gure azkatzalle txit indartsua, lagundu zai-

guzu inpernuko etsayari egin bear diogun burruka ontan; eta lenengo Jesus-Aurra eriotzako zori gain-gañekotik azkatu zenduen bezela, babestu zazu ere orain Jainkoaren Eliz Deuna bere etsayen biurkeri eta zorigaitz guzitik eta gure arteko bakoitza babestu ezazu zure laguntzaz indarturik, zintzoki bizi, eriotz on bat egin, eta betiko zoriona zeruan iritxi dezagun. Alaxen.

Aita Santuak Otoitz oni emanak dauzka zazpi urtekota zazpi berrogeiko barkapenak esaten dan aldi bakoitzean.

VITORIA



# Barbara Santuari

## OTOITZA.

*Abestitxoa.*

Jesukristo'ren Emaztea, atoz, ta Jaunak zuretzat daukan koroa artzazu.

V. Barbara doatsua, gure aldez eskatu zazu.
R. Sakramentuak artzeko gai izan gaitezen.

OTOITZA.

Eskatzen dizugu, Jauna, Barbara santuaren bitartez, iritxi dezagula gure eriotz-eguna baño len egizko penitentziaz ta aitortze garbiz, gure Jaun Jesukristo'ren zorioneko gorputza artzea. Auxen bizi da, ta onek agintzen du zurekin betikotasun guzian. Alaxen.



## Ignazio Santuaren lau gaztiguak

1. Iduki ezazu, aldezazukenerano, zure biotza Jaungoikoagan eta Jaungoikoa zure biotzean beti bera gogoratuaz.

2. Jaungoikoaren gogo guztiz santua izan bedi zure asmo guztien azkena, eta lanbide guztien asiera.

3. Naiz egon zaitezala lagun artean, naiz bakarrik, zure begien aurretik Jaungoikoa iñoiz kendu ez ezazula.

4. Jesukristo'ren bizitza izan bedi zurearen ispillua leku guztietan, arkitu zaitekean edozein eran.

ILLAREN EGUN BAKOITZERAKO
ITZ OROIGARRIAK.

1. Jainkoak ikusten

nau. Jainkoak aditzen nau. Jainkoak nere egintzak erabaki bear ditu.

2. Jainkoa da nere Egillea, nere Eroslea, nere Ongillea, nere Aita. Berari kalterik egingo ote diot ba?

3. Anima nerea da, bakarra da, betikoa da... nere zorigaiztokoa galtzen baldin badet!

4. Anima salbatuta guztia salbatuta dago; anima galduezkero, guztia galdua dago; eta galdua betiko.

5. Zertarako du gi-

zonak mundu guztia irabaztea, anima galtzen badu?

6. Jainkoa'gandik aldendua dagoanarentzat ez dago ez pozik, ez zorionik.

7. Eriotza etortzen da gutxien uste izaten dan garayan.

8. Berialako batean egiten da pekatua, berialako batean iltzen da, eta berialako batean erortzen da inpernuan.

9. Bizitza nolakoa, eriotza alakoa.

10. Jaungoikoarentzakoeta zerurako ba-

karrik egiñak izandu gera.

11. Jainkoa maitatzeaz osterontzeko guztia arrokeria da.

12. Une bateko atsegiña...gero, neke oñazeen betikotasuna.

13. Zein bizi al izango da inpernuko su erretzallearen erdian, eta beti dirauten garren artean?

14. Inpernuan dagoan batek, zer egingo luke,nik dedan beta baleukake? Eta zer egiten det?

15. Bukatu gabeko asmo onez betea da-

go inpernua.

16. Estua da zeruko bidea, eta gutxi arako bidetik dabiltzanak; inpernukoa zabala da eta asko ara bide egiten dutenak. Gutxiakin bizitzea on izaten da, gutxiakin zeruratzeko.

17. Neke-eraman laburra, eta betiko gozaera.

18. Pekatu ariñak gutxitzat jotzen dituena, larrietan sarri eroriko da.

19. Eriotz-garayan, egipen onak baizik ez gaituzte poztuko, e-

gindako gaizkiak beste ezerk ez digu miñik emango.

20. On izan zan Jesukristo'k nekeak eramatea, eta ala bere zorian sartzea.

21. Kristo baraurik, ni ase betean; Kristo larru-gorrian, ni ondo jantzia; Kristo miñetan, ni leporañoko atsegiñetan.

22. Orain egizu, eriotzakogarayan egin izana naiko zendukeana: bada une artan naiko dezu baña betik izango ez dezu.

23. Zaute ernai eta

otoitz egizute, tentazioan erori etzaitezten: Jesukristo da au esaten diguna.

24. Atseden gabe otoitz egin bear da.

25. Nork bere buruari gogor egin gabe, ez da sartzen zeruetan.

26. Ai munduaren zorigaiztokoa, gaitzerako ematen dituen bideakgatik! baña ere zorigaiztokoagoa gaitzerako bide emallea: Jesukristo da au diona.

27. Zer poz izaten dute kondenatuak or-

ain mundu onetan gozatu zituzten, eta inpernua erakarri zien atsegiñetatik?

28. Bere anima salbatzeko alegiña egiten ezduenak, edo zinismenik ez du, edo eroa da.

29. Salbatzeko bear da betikotasuna idukitzea buruan, Jaungoikoa biotzean, eta mundua oinpean.

30. Zeruan sartu nai baldin badegu, iduki dezagun beti gogoan zeruko atea Maria dala.

31. Gurekin dago

Aingeru zaintzallea, agertu dezayogun diogun maitetasunaren esker-ona, ar dezagun itxoipena bere laguntzan,eta maitetasun biguña Jose santuari izan dezayogun.

Ez gaitezela egundaño aztu eskatzeaz purgatorioko anima bedeinkatuen aldez, pekatariak óndu ditezen, eta Elizaren aldez.

# INPERNUAREN ORRO
EDO
# KONDENATUEN DEADARRAK

eta ain zorigaiztoko azkena dakarten gaitza sendatzeko bidea.

---

**Mingain gaiztoko Senarkerik'en oyuak.**

---

Biraule lotsagabea! ni izan nintzan zu zerana eta zu izango zera ni naizena. Nik lenago birau egiten nuen, zuk, orain birau-egiten dezun bezela; gezurrezko juramentuak egiten nituen, biraubak botatzen nituen, etzion e-

zerreri barkatzen nere ziraun mingañak, bera eskuratuko zuenik etzan ezer, eta... eriotzak atxitu ninduen bildurrik gutxiena nionetan, erabakia izan nintzan, eta betiraupen guztirako su garretaratua. Eta zure bide okerretik etzera aterako? nayagoko dezu nerekin zorigaiztokoa izan, zure biziera zuzendu baño? bizitza aldatzen ezbadezu, ni orain naizena zu ere izango zera.

## Etsayen pekatua dan birauak uzteko bideak.

Lenbiziko bidea: biraurik ez esateko asmo sendo bat goizean ar zazu, eta orretaratzeko laguntza Jaungoikoari eskatuko diozu. Birjiña txit santuaren bitartez, iru Agur Mari errezatuaz.

Bigarren bidea: aserretzen bazera, edo asmo txarren bat somatzen bazatzu, zaude ixilik edo ezazu: "Birjiña txit santua lagun nazazu: Jaungoikoak lagun naza-

la"; eta gogoan euki ezazu itz onak esatea txarrak esatea bezin erraz dala.

Irugarren bidea: gertatzen bazazu itz gaiztorik esatea zure gogoa ori ez izan arren, Jainkoa'ri beraren barkapena eskayozu, eta errezatu Agur Mari bat.

Laugarren bidea: jokoetatik eta gaizkiesateetatik iges egizu; eta aditzen badezu gaizki itz egiten, ezazu: "Agur Maria txit garbia", eta Jaungoikoa'ri aen aldez eskatu.

etsayak utzi gabe, bestela... etorriko zera nere oñazeak zureakin batean geitzera emengo kirats eta estutasunarekin, eta zerorrek banatuko dezun suarekin.

Iguiña edo gorrotoa sendatzeko bideak.

Lenbiziko bidea: urko laguna maitatuko dezu zere burua bezela.

Bigarren bidea: uste izango dezu, zuk Jaungoiko'ari egiñ diozkatzun iguiñak, urko lagunak zuri egin zizkizuna baño ber-

## Kain gorrototsuaren oyuak.

Gorrotoan eta amorruak gañ egiñik zauden zorigaiztokoa, urko lagunari augrrik egin ez ezik begiratu ere nai ez diozuna, eta aren kalte beti gaizki itz egin dezuna! Begira... zer izua! onako nere aldameneko toki au...au da zuri itxedoten dagokizun azkena...nere anaya illerazo ziran gorrotoak, ekarri ninduen onera. Adizkidetu zaitez, maite itzatzu gizon guztiak,

dingabe aundiagoak dirala; eta oek zuk barkatzen ez baditu-zu, aek Jaungoikoak ez dizkitzula barkatuko, zure urko lagunak barkapenik ez duela irabazi baldin baderitzazu, barkayozu Jaungoikoaren maitetasunez, Jaun onek ala agintzen dizulako.

Irugarren bidea: Aztuezazu lenbaitlen urko lagunak egin zizun kaltea, eta aren oroipena burura badatorkizu, bota ezazu bereala zugandik,

jantzira erortzen dan txinparta bat, su artu baño len botatzen dan bezela.

Laugarren bidea: oroituko zera kristauba zerala, au da, Kristo'ren jarrailea, eta ez ezazu aztu egundaño Kristo k artu zituela zigorkadak, arantzak eta lotsa gaiztoak; kendu ziozkatela soñekoak, gurutz iltzatu zutela, eta zintzilik zegoen lekutik lenbizi egin zuen gauza izan zala bere etsayai barkatzea, eta aekgatik

bere betiko Aitari eskatzea: barka zayezu baba, zuk ere, eta eskatu ezazu beren aldez, kristaua zeran aldetik. Ez ezazu gaizkirik esan aekin arkitzean, diosala egin zayezu, beren bearretan lagundu zayezu al dezakezuneraño.

Bosgarren bidea: Aita gure ta Agur Mari bat errezatuko dezu egunoro egin dizkitzuten bidegabekeriagatik.

LOIKERIZALEAREN OYUAK.

Nere bide gaiztoetatik zabiltzan peka-

taria... begira... Ikusten al dezu? ona emen nere atsegiñak ekarri didatena... Oraindik damutzeko beta zuk badezu; bide onetik beti zabiltz; ardotegi ta edategi guzietatik alde egizu; bota itzatzu arako liburu, paper ta irudi gaiztoko aek; eta dantza zikin ta jokoetatik alde egizu; utzi itzatzu lagun gaiztoak, ez itzatzu egin gauz itxusiak; alakorik egiten baldin badezu... zu ere nere antzera arkituko zera betiko.

Loikeria sendatzeko bideak.

Lenbiziko bidea: goiz arratzetan eskatuko diozu garbitasunaren Ama dan Birjiña txit santuari, agur egiñaz orretarako iru Agur Mari'ren bidez.

Bigarren bidea: gogoerazi loyen bat burura datorkizun bezin laster bota ezazu zugandik, esanaz Maria'ri: Birjiña txit santua, lagundu nazazu.

Irugarren bidea: Berezi zaitez lagun gaiztoetatik, dantza

eta limurizko maitekerien elkartasunetatik; azaletik ere ez dezu artu bear liburu edo paper gaiztorik; etsayezula begiratu loikeriaren pizkorgarri diran irudiai, eta guztiaz gain ez itzatzula egin lotsagarrizko egikerak.

Laugarren bidea: jantziko zera arrokeri gabe; jan eta edan ezazu neurriz; ez esan itz loirik, ez aditu ta ez jarraitu jolas gaiztorik, eta zure begiai ez eman geiegiko azkatasunik.

Bosgarren bidea; oroitu zaitez, Jaungoikoa begira dagokizula, eta emen bertan bizia kendu ta bota zaitzakeala inpernuetara beste askoren artean.

Seigarren bidea: maiz artu itzatzu Sakramentu santuak.

Lapur gaiztoaren oyuak.

Lapurretan nere antzera ibilli zeran kristauba! begira nazazu... ez al dezu ikusten...? oek dira, bada, lapurreria utzitzen ez badezu itxedoten dizkitzuten oñazeak.

Etzaitezela lilluratu: adi ezazu bein betiko... lapurrak dira eta emen daude oñazetan nerekin, bideetan ostutzen dutenak ez ezik, saldu erosietan bear ainbat eman ez dutenak, eta gastu alper eta bidegabeko auzien bidez urko lagunari kalte egiten dienak, edo zorrak ordaintzen ez dituztenak. Eta aitortzen ez bazerate eta jabeari bere gauza biurtzen ez badiozute, etorriko zerate nerekin emen gar egitera!

Lapurrería sendatzeko bideak.

Lenbiziko bidea: ez ezazula nai izan besterentzat, zuretzat nai ez dezunik. Zuk ez badezu nai zure gauzik iñork zerorri kentzea, jakin ezazuke bestek ere naiko ezdula berea kentzea.

Bigarren bidea: maiz ekartzu gogora, zure esku eta biotzari Jaungoikoa begiradagokiela, eta lapurrak inpernuko gar gorrietara botiak izango dirala.

Irugarren bidea:

besterena kentzeak beartasuna sortzen du, bide gaiztoz bildutakoak bideonezirabazitakoa galtzea dakarrelako, eta emendik etorri oi dira eritasunak, galmenak eta gaitz mota guztiak, eta gero inpernua. Eta mundu osoa irabaztea zertako det anima etsayak baldin baderamate?

Laugarren bidea: limosna maiz egizu, besterena kentzeak beartasuna dakarren bezela nor beretikan limosna egitea onda-

sunak ugaritzeko bidea dalako!

Bosgarren bidea: beragatik, bada, zure ondasunak agintzen dizuteneraño limosnen bat egingo dezu egunoro, ez arrokeriz, ezpada zure urko lagunaren laguntzeagatik. Etzaitezela arrotu ona egiten dezulako; etzera, ordea, orretzaz lotsatu bear, esan nai det, ezdezazula egin ikusia izan zaitezen, ez eta utzi ere egin gabe, egitean begira dagozkitzulako.

### Judas gaiztoaren oyuak.

Nai al dezu jakin zergatik nagoen itxian, piztiak irentsia, gartartean eta oyuka beti betiko? oroitze utsak dardaraz jartzen nau! oroipenak berak nere oñazeak ikaragarriro azitzen ditu! Jauna gaizki artu nuen, eta saldu egin nuen nere Jaun ori Ai zuri! aitortzen ez badituzu gaizki egindako Jaun artzeak eta gaizki egindako aitorpenak, pekatuak ixilik gorde ziñituelako

edo aitortu baziñituen ere zure bizitza zuzendu etzenduelako eta pekatuaren erortzeko zorietatik aldendu etziñalako. Ai zure zorigaiztokoa!... Egizu lenbaitlen zure pekatu guztien aitorpen oso bat, nerekin batean gar egin nai ez badezu betiraupen guztian. Etzaitela setatsua izan eta Jainkoaren itzai entzun gor egin, bestela...ikusiko dezu.

SANCHO EL SABIO

VIZENTE FERRER SANTUAK

*eriotza on bat iristeko egunero esaten zuen otoitza.*

---

Erruki zaite, nere Jaungoikoa, eta aditu ezazu nere otoitza; errruki zaite, Jauna, nere anima gaxo arkitzen da ta. Erruki zaite, Jauna, begira zaidazu, nere etsayak zirikatua arkitzen naizelako. Erruki zaite, Jauna, atsekabez beterik arkitzen naizelako: ta ikustean zure

zuzentasuna nere kaltez jartzeko bideaegin dedala, beldur eta ikaraz arkitzen naiz, eta nere gorputza dardaraz dago. Erruki zaite, nere Jaungoikoa, eta izan dedilla zure ontasuna aundia bezin ugaria; Erruki zaite, nere Jaungoikoa, bada egunaz, gabaz eta une guztietan, etsayak erasotzen dit. Erruki zaite, nere Jaungoikoa, erruki zaite Jauna, egunero zuri deitzen dizut, eta poztu ezazu zure maitetzallearen bio-

tza. Erruki zaite, Jauna, erruki zaite, damuturik arkitzen da gure biotza-ta.

*Gloria Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari. Asieratik zan bezela, orain eta beti, betikotasun guztian. Alaxen*

OTOITZA.

Zure aldetik guztiak zeruratzen dituzun eta iñor galtzerik nai ez dezun nere Jesukristo Jauna: zuri etzaizu eskatzen iñoiz ere itxogipen oso gabe; zure ao santu ta

bedeinkatuaz esan zendualako: *zeruko Aitari nere izenez eskatzen diezun guztia emango zatzue;* eskatzen dizut, Jauna, zure izenagatik, eriotzako garayan indazula ezaguera oso bat, izan dezadala itza, indazula nere pekatuen damua, sinismen bizia, itxogipen sendoa eta egizko maitetasun bat, biotz garbi batez esan deizudan: zure eskuetan, Jauna, uzten det nere espiritua, bedeinkatua eta zoriz betea betikotasun

guztian zeralako.

Alaxen.

## BIOTZ-OTOITZA.

Nere Jaungoikoa: zugan sinisten det, neresinismenaindartu ezazu; zugan itxoegiten det, nere itxogimena geitu zazu; biotz guztiz maitatzen zaitut, nere maitetasuna sutu ezazu: zuri kalte egiña damu det, nere miña ugaldu ezazu.

Maitatzen zaitut nerelendabiziko asiera bezela, nai dizut

nere azkena bezela, ematen dizkitzut eskerrak nere betiko ongillea bezela; eta deitzen dizut nere laguntzalle bezela.

Nere Jaungoikoa, zure jakintzaz zuzendu nazazu, zure indarrez lagundu zaidazu, zure biotz onez maite nazazu.

Nere gogo, itz, egipen eta lan guztiak eskeintzen dizkitzut, emendik aurrera beti Zugan gogoa izan dezadan, Zutzaz itzegin dezadan, Zuk nai dezun eran guzia

egin dezadan, Zure gogo txit santua orain eta beti.

Pizkortu ezazu nere epeltasuna, nere Jaungoikoa, egin ditudan pekatuak ordaintzeko, etortzen zaizkidan asmo gaiztoak aldentzeko, nere griña gaiztoak oñazpiratzeko eta bear ditudan onbideak iristeko.

Bete zazu nere biotza ontasunaren maitetasun bigun batez, nere pekatuen egizko gorroto batez, nere urkoganako maitasun

santu batez, eta munduarenganako indartsu batekin, onela bizi nadin.

Lagundu zaidazu, Jauna, gauza onetarako daukaten nere epeltasuna biotz bero batez ordaindu dezadan.

Eman zaidazu, nere Jaungoikoa bear dedan begiramena nere eginkizun guzietan, indar aundi bat zorigaitzetan, eramankizuna lanetan, zurtasuna aberastasunetan, eta neurritasuna jan edanetan.

Indartu nazazu, Jauna, nere biotza garbi zaintzen ajola aundi bat jarri dezadan, nere itzak bear bezelakoak izan ditezen eta nere bizi-bidea txukuna izan dedin; beti alegindu nadilla nere griña txarrak menderatzen, zure aginduak betetzen eta nere betiko zoriona irabazten.

Nere Jainkoa, eman zaidazu argia ezagutzeko munduaren ezereztasuna, zeruaren aunditasuna, bizitz onen laburtasu-

na, gerokoaren betikotasuna;onela eriotz on batera gertatu nadin, betiko zoriona onela irabazteko. Ala izan dedilla.

---

## Padua'tar Antonio' Santu zoriontsuaren BEDERATZIURRENA.

Bederatziurren au urtearen edozein garaitan egin diteke.

Ona izango da lendabizi aitortzea, meza entzutea ta limosnen bat egitea.

### Lendabiziko eguna.

DAMU-EGINTZA.



Damu det, nere Jauna, ta atsekabe det biotzguztiz, zuri kalte egiña, zu azkengabeko ontasuna zeralako ta guziz gain maite zaitudalako; ta zure laguntzaz

aurrera pekaturik ez egin, ta batez ere pekaturako era errazak usteko asmoa artzen det. Eta zuk Padua'ko Antonio, Santu miraritsua, Jesus zure besoetan eukitzen amairu orduetan artu zenduan poz eta atsegiñaren izenez, lagundu zaiguzu orain eta gure eriotzako garayan. Alaxen.

OTOITZA.

Mirariyen billa bazabiltza, begira eriyotza eta erruak, zoritxar eta etsayak eta izurriak aldegiñik, gaxoak sendatzen dirala:

*Itxasoa baretzen da, lotuta daudenak irtetzen dira, gorputz-zati eta ondasun galduak berriro arkitzen dituzte, bai gazteak, ta bai zarrak.*

Gaitz-zoriya joaten da, beartzuak lagundurik dijoaz: esan dezatela onela gertatu zayetenak, esan dezatela Paduarrak

*Itxasoa baretzen da, lotuta daudenak irtetzen dira, gorputz-zati eta ondasun galduak berriro arkitzen dituzte, bai gazteak ta bai zarrak.*

Gloria Aitari, Gloria Semeari, Gloria Espiritu Santuari.

*Itxasoa baretzen da, lotuta daudenak irtetzen dira, gorputz-zati eta ondasun galduak berriro arkitzen dituzte, bai gazteak, ta bai zarrak.*

Eskatu egiozu Jainkoari gure aldez Antonio bedeinkatua, onela bere eskeinsarien jabe izan gaitezen.

**Antonio Deun maitagarriya. Maria'ren laguntasunaz jayoa, berari eskeñi ziñiozun bosgarren urtetik zure garbitasunaren lirioa; zuk etsayari iges eragin ziozun**

zure atzaparrak egin zuan gurutzearen irudiaz: iritxi zaiguzu Ama oni maitasuna idukitzea, baita ere etsaya garaitzeko indarra.

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu, *Aita gure bat, Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, azkenduaz egunero otoitz onez.

### Azkenerako otoitza.

Eroslearen antzera animak zeruratzeko bizia eman zenduan Deun ona: gure egunen azkenean zuk il ziñanean ikusi zenduan bezela, Jesus

eta Maria ikustea iritxi zaiguzu gero zugaz zeruan betiko arkitzeko. Ala izan bedi.

## Bigarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Damu egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433 garren orrian.*

Munduko zorakeriei iges egiteagatik, ondasunak eta beste gauz guztiak alde batera utzita, Agustindar praile sartu ziñan deun maitekorra: munduari egizko gorroto bat iritxi zaguzu.

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai

duen esker edo laguntza, eta esango ditu *Aita gure bat, Agur Maria ta iru Gloria Patri,* irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Irugarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

**Martirioa irabazteko asmoan Franzisko deunaren erlijioan sartu ziñan santu arrigarriya, gure gorputza bear bezela minberatutzeko zaletasuna eskuratu zaiguzu.**

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu, *Aita gure bat, Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Laugarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

**Jakintsu ta santu bat bezela, Jainkoak erakutsi nai izan zinduanean apaltasunez beterik munduaren begietatik, ezkutatzeko alegin aundia ipiñi zenduan santu illezkorra, on bide eder au iritxi zaiguzu.**

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza. eta esango ditu, *Aita gure bat*, *Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Bosgarren eguna.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

# Jainkoaren itza zabaltzeko, Jainkoagandik itzareneta mirarien indar edo eskubide ederra artu zenduan santu ongillea, zure itz eder ori gogoz entzutea iritxi zaiguzu.

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu *Aita gure bai, Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Seigarren eguna.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

**Maitasun aundi batekin Jesus aurra zure besoetan euki zenduan santu biotz beera, Sakramentuan gure Jaun bera bear dan bezela artutzea iritxi zaiguzu.**

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu, *Aita gure bat*, *Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Zazpigarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

**Elizaren etsayak lotsaturik uzteko, Jainkoaren gorputza aldarean zegoela, abere bati agur-eraziaz, argiro erakutsi zenduan santu indartsua, guk ere bera Sakramentu orretan biotz-biotzetik maitatzea iritxi zaiguzu.**

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu, *Aita gure bat, Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Zortzigarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

**Jainkoaren itza gizonak entzun nai etzutelako, itsasoko arrayai itz egin ziezun santu maitagarria, gure animak zeruko egiak entzutera jarri ditezela iritxi zaiguzu.**

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu, *Aita gure bat, Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Bederatzigarren eguna.

*Kurutze santuaren—*
*Damu-egintza, 432'garren orrian.*
*Otoitza, 433'garren orrian.*

Zure maitatzalleak zorigaizto, gaitz eta baita ere eriotzatik gordetzen dezun santu ezin obea, anima ta gorputzaren gaitzetatik, eta batez ere betiko eriotzatik gorde gaitzatzu.

Emen eskatuko dio Antonio deunari bederatziurren ontan eskuratu nai duen esker edo laguntza, eta esango ditu *Aita gure bat, Agur Maria ta iru Gloria Patri* Irutasun guztiz deunari, esanaz gero 435'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Erroke Santu zoriontsuaren BEDERATZIURRENA.

*Gurutze santuaren.....*



Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko eta egizko gizona, nere Egille ta Salbatzalle guziz ona, zu zerana zeralako, ta gauz guziak baño geyago, maite zaitudalako damu det, damu det biotz guzitik zu ain ona, santua ta maitagarria izanik, zuri kalte egiña. Asmo sendo

bat artzen det ez geyago pekaturik egiteko, ta alde egiteko pekaturako bide guzietatik, nere pekatu guziak aitortzeko,e ta penitentzia egiteko; onela nere bizitza on bigurturik, uste detzure mugarik gabeko errukian, barkatuko didazula ta salbatuko nazula. Alaxen.

*Egun guzietarako eskaria.*

Guzia dezakezun betiko Jaungoikoa! pekatariai diezun maitasunagatik

Maria txit santuaren errai garbietan gizon egiñik, zure odolaren indarrez inpernuaren menpetik atera gaituzuna! zuk erakusten diguzu santuenganako jayera, beren bitartekotasunaz gure bear ta atsekabietan laguntza izan dezagun. Orregatik, eskatzen dizugu, zure maitale Erroke Santu zorionekoaren izenez eman zaiguzula laguntza bederatziurren onetan esker ugaria ateratzeko, eta iritxi dezagun eska-

tzen degun laguntza, zuregorapen geyagorako ta gure animen onerako baldin bada. Alaxen.

*Lenengo egunerako otoitza.*

Erroke santu zoriontsua, gure zaintzallea! zure aurtasunetik Maria txit santuari izan ziñion maitasunagatik, eta Ama maite onek zure bizitza guzian egin zizkitzun laguntzakatik; eskatzen dizugu, iritxi zaiguzula Jaunagandik Ama Birjiñaren maitatzalle be-

roak izateko eskerra, berebitartekotasunaz izan dezagun betiko zorioneko bizitza.

Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza Erroke santuaren bitartez.*

### *Egun guzietarako azken-eskaria.*

Gure Jesus Salbatzalle guziz ona, gizonen semeetan zure poz atsegiñak dituzuna, eta ain onginayaz gure zaintzalletzat Erroke Santua eman diguzuna, bere bitartez izurri ta gaitz gu-

zietatik azkatu gaitezen! Santu aundi onen irabazpenak, eta gaxo izurridunai laguntzeko iduki zuan maitasun irazeki argatik, eskatzen dizugu, erruki zaitezela gutzaz, gaitz eta izurririk izan ez dezagun; eta zorioneko santu onek bere neketa atsekabeetan izan zizun maitetasun sendo argatik, eman zaiguzu osasuna; eta ez ditezela ere loitu gure animak pekatuzko gaitzez; zure laguntzan iraun dezagun

bizi geran artean zu maitatzen, ikusi zaitzagun gero zeruko zorian beti - betiko. Alaxen.

Gizon onek mundua ezerezturik eta lurreko gauzak garaiturik, aoz eta eskuz zeruko ondasunen jabe egin zan.

G. Jaunak bide zuzenetatik eraman zuan zintzoa. E. Eta Jaungoikoaren erreinua berari agertu zion.

ESKARIA.

Betiko biotz biguñaz, arren Jauna, zu-

re erria zaindu ezazu, eta zorioneko Erroke santua gure alde degula, egizu, anima ta gorputzeko gaitz guzietatik azkatu gaitezela. Ala izan dedilla.

*Bigarren egunerako otoitza.*

---

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu zoriontsua, gure zaintzalle maitagarria! Zure jayoterria uzteko iduki zenduan biotzeko indarragatik, eta mundua bere arrokeri guziakin uzteko izan zenduan

gogo sendoagatik, bi-
llatzen zenduala go-
ra-bera guzietan
Jaungoikoaren naya
egitea; biyotzetik es-
katzen dizugu, Jaun
aundiagandik iritxi
zaiguzula laguntza,
gure biotza mundu-
ko gauzetara geyegi
ezdedin itsutu, baizik
maite dezagula guzi-
en gain gure Egille
ta zeruko Aita; bizitz
onen ondoren go-
raldu dezagun ainge-
ruakin eta santuakin
batera betiko zorian.
Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita gurea, Agur*

*Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza. Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448'garren orrian dagon azken-eskaria.*

## Irugarren egunerako otoitza.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu zori-ontsua, gure laguntzalle berezia, izurriaren kalte ikaragarriaz atsekabeturik zeudenai laguntzeagatik, maitasun irazekiaz suturik errizerri ibilli ziñana! Eri ta gaxo zeudenak alaitzen ziñituen maitasun argatik, iritxi zaiguzu, piztu dedilla

gure biotzetan urkolagunenganako maitasun bizi bat barkatzen diegula gaizki egiten digutenai, ez ikusi egiten dizkiegula beren utsegiteak, eta laguntzen diegula beren bear guzietan; era onetan beti iraungo duan saria eskuratu dezagun.

Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza, Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448'garren orrian dagon azken-eskaria.*

---

## Laugarren egunerako otoitza.

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu txit zoriontsua! Zeruko Jaunak zure zintzotasuna ikusteko noski, gaitz bat bialdu zinduan eta zuk eramankizunez guzia artu zenduan. Eskuratu zaiguzu guri ere, munduko naigabeetan zurearen antzeko eramankizuna eta Jaungoikoaren gogoa eramatea; onela zeruko betiko poz-atsegi-

ñak zorian iritxi ditzagun. Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita Gurea, Agur Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza, ¡Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448'garren orrian dagon azken-eskaria.*

## Bosgarren egunerako otoitza.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445 garren orrian.*

Erroke santu txit zorionekoa eta gure laguntzalle ona! zuk izan zenduen gaitz itsaskor argatik erritik bota bazinduzten ere, Jaungoikoarenganako uste osoa beti iduki zenduan, eta orregatik zure bakar-

dade ta atsekabe artan Jaunak alaitu zinduan, txakur baten bitartez janaria bidaldurik, osasuna biurtzen zizula. Iritxi zaiguzu, santu maitea, guk ere atsekabe ta joan etorri guzietan zeruko Aitaren errukitasun azkengabean uste osoa iduki dezagula; eta ezaguturik guzia gure onerako gertatuko dala, iraun dezagula Jaun altsuaren mende santuan; eta lurreko nekeetan pozik ibiltzen gerala,

naigabe oyen bidez zeruko beti betiko atsegin osoa irabazi dezagun Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkiyon laguntza, Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448'garren orrian dagon azken eskaria.*

## Seigarren egunerako otoitza.

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu zoriontsua gure laguntzalle maitatia! Zure jayoterrira biurtu ziñanean, itxian sartu zinduzten, gaizkilleren bat izan baziñan bezela; eta zuk

pake ta pozez bidegabekeri ura Jesus'en izenez eraman zenduan; zure miñen artean Jaunak zeruko pozgarriak bidaltzen zizkitzula; iritxi zaguzu guri ere eramankizuna eta atsekabe guzietan Jaungoikoaren gogoaz bat egiñik beti bizi gaitezela, bizitz onen ondoren santubakin batean Jaun aundiaren gorapenak abestu ditzagun betiko zoriontasunean.

Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita gurea, Agur*

*Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza, Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448'garren orrian dagon azken-eskaria.*

## Zazpigarren egunerako otoitza.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu zoriontsua, gure pozemalle txit ona! Zure jayoterri Montpeller'era eldu ziñanean, etsaitzat artu zinduzten, eta arrera txarra egin zizuten, guzia Jesus'en maitasunez ixillik eramaten zenduala, nor ziñan agertugabe; baña Jaungoikoak, il

ziñan bezin laxter, milagroz ezagutu erazi zinduan; erri guziak goratu ta maitetu zinzan: eramankizunezko ikasbide eder onegatik, arren, eskatzen dizu gu iritxi zaiguzula gure burua ezagutzeko laguntza erbeste onetatik irtetzean, betiko zorian zure lagun izan gaitezen. Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza, Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448'garren orrian dagon azken-eskaria.*

## Zortzigarren eunerako otoitza.

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu zoriontsua, gure laguntzalle maitatia! Zure anima ederra bere ontasun bikañen saria artzera zeruan sartu zan zorioneko garai argatik, eta Jaungoikoaren arpegia ikusteaz dauzkan poz ayekgatik; eskatzen dizugu, argitasuna iguzula, beñere aztu ez gaitezen, zertarako jarri gaituan Jaungoikoak lurr-

aren gañean. iraun dezagun pozez bera maitatzen bere arpegia ikusteko zoriona iduki dezagun betiko tasun guzian.

Alaxen.

*Emen iru aldiz Aita Gurea, Agur Maria ta Gloria errezatzen dira, eta gero eskatu beza bakoitzak ongi datorkion laguntza Erroke santuaren bitartez, esanaz gero 448 garren orrian dagon azken-eskaria.*

## Bederatzigarren egunerako otoitza

---

*Kurutze santuaren.....*
*Egunerorako eskaria, 445'garren orrian.*

Erroke santu zoriontsua, gure pozemalle maitagarria! Jaungoikoak saristu nai

izan ditu zure onbideak, artzen zaituztela erriak beren aita eta zaitzalletzat, beren ongille bezela goraturik; eta zeruko Jaunak bere aserrea gozaturik, zure bitartez biraltzen ditu errukitasun ugariak gizonen artera, batez ere izurri edo pesteta koleraz mundua kastigatzen duanean: orregatik biotzetik eskatzen dizugu, iritxi zaizkiguzula bederatziurren onetan eskatu dizkitzugun laguntzak; eta

izan zaitezela bizitzan gure laguntzallea, eta batez ere eriotzako garayan: zaindu gaitzatzu, arren, santu bedeinkatua, une bildurgarri artan, iritxi dezagun ematea Jaunaren laguntzan azkeneko zotiña, atseden dezagun pozez goratzen gure Egille Jaungoikoa zurekin eta santu guziakin beti betiko zorian.

Alaxen.

---

# Erroke Deunari.

*Erroke Deuna*
*Zoriontsua*
*Zerutik lagun*
*Zaiguzu*
*Ta gaitz guzien*
*Sustrai gaiztotik,*
*Arren, azkatu*
*Gaitzatzu.*

1.

Jayotzatikan
Jesus'ek dizu
Bere agerkaya
Ezarri;
Bada gurutze
Gorri bat dezu
Bulargañean
Ekarri;
Montpeller'tarrak
Beti dabiltza
Pozez esanaz
Elkarri;
Santu aundia
Zerala izango
Zeru ta lurren
Pozgarri.

2.

Ekiñaz gogor
Pekatuari
Oraindik ume
Biguñik,
Zure gorputzak
Emen lurrean
Ez zuen izan
Pakerik;
Penitentzia
Ta baraubetan
Iñor ez dezu
Berdiñik,
Aurtxo izanik
Arkitzen zera
Santu aundi bat
Egiñik.

3.

Amabi urte
Zinduzenean
Ziñan ume zurtz
Ikusi.
Osaba baten
Mendeko baña
Montpeller'ko jaun
Nagusi:
Ondasun guzik
Zabaldurikan
Zoaz mundutik
Igesi;
Nai dezulako
Jesus onaren
Santutasuna
Ikasi.

4.

Acuapendente'n
Kolerak artu
Zituban jende
Ugari,
Maitetasunez
Gaxo etxean
Zera laguntzen
An jarri.
Gurutze-bidez
Egin diozu
Iges-eraso
Gaitzari,
Toki askotan
Egin dituzu
Milla ta milla
Mirari

5.
Zintzotasuna
Azaldutzeko
Jaungoikoaren
Argia,
Gaxotzen zera
Zuk daukazula
Iztar batean
Zauria:
Guzitik urrun
Zaude bakarrik,
Baña biotzez
Alaya;
Goi-goiko Jaunak
Bialdu bai-dizu
Laguntza eta
Zoriya.

6.
Bakar-egonik
Zure pozgarri
Dezu Jaungoiko
Aundia:
Txakur batekin
Biraltzen dizu
Eguneroko ogia.
Jesus onari
Ziñion izan
Maitasun oso
Garbia,
Orain milagroz
Dizu ordaintzen
Merezi dezun
Saria.

7.
Iturritxo bat
Oparo zaitzu
Zauden lekuan
Argitu;
Il egarria
Eta dezazun
Zauria uraz
Garbitu,
Orra non zeran
Garbitutzean
Sendaturikan
Arkitu,
Jainkoak bere
Serbitzariak
Onela ordaindu
Oi ditu.

8.
Arrotz bezela
Gerra-aldian
Bazoaz zure
Errira,
Salatzallen bat
Ote zeran zu
Guzik or daude
Begira;
Osabak berak
Sartutzen zaitu
Presoak dauden
Tokira.
Atsekabeak
Zuretzat orain
Samintasunak
Ba-dira.

9.
Itxian zaude
Zure errian
Bertako Jauna
Emanik,
Neke oñazerik
Ez da munduan
Zugana eldu
Ez danik;
Ala ere beti
Gau eta egun
Oraziora
Emanik

Zure gorputza
Illik arkitzen
Dute lurrean
Azkenik
10. Il zera beartsu,
Eta gorputza
Obiratzeko
Ezer ez;
Bañan anima
Zeruratzen da
Aingeruakin
Txit pozez:
Kartzela berriz
Beterik dago
Txit argitasun
Ederrez,
Montpeller'tarrak
Jakin bezate
Santua zeran
Ala ez.
11. Oltxo bat ara
Kartzelan bertan
Orain arkitzen
Dutena.
Idatzirikan
Dauka: gorputz au
«Da santu andi
«Batena:
«Emen lurrean
«Bizi zanean,
«Erroke zuen
«Izena:
«Gaitz guzietan
«Jaunaganako
«Bitartekorik
«Onena.
12. Orain zerutik
Zuzen gaitzazu
Bizi geranok
Munduan;
Zuk emandako
Erakuspenak,
Ditzagun izan
Gogoan:
Lagun zaiguzu,
Gaitean bizi,
Zu bizi ziñan
Moduan;
Igo gaitezen
Zerura gero
Iltzen geraden
Orduan.

AÑA. Hic vir despiciens mundum, et terrena triumphans, divitias cœlo condidit ore, manu.

v. Justum deduxit Dominus per vias rectas.

R. Et ostendit illi regnum Dei.

OREMUS Populum tuum, quæsumus Domine, continua pietate custodi, et beati Rochi suffragantibus meritis, ab omni fac anima et corporis contagione securum. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Iru aldiz { Santu Jaungoikoa, Santu betikoa,
Santu indartsua, Arren izan zaite
Gutzaz errukitsua.

# Karmen'go Ama Birjiñari

## BEDERATZIURRENA.

---

### Lendabiziko eguna.

---

EGUNEROKO OTOITZA.



Karmen'go Ama maitea! Gure gaizki egindakoaz damuturik emen gatoz zure oñetara gure bizikera zuzenduko degula eskañiaz eta zuri eskatuaz gure animen betiko zoriona iritxi zaiguzula. Gure eskariak, arren, ongi artu itzazu, bear de-

gun guzietan gure laguntzalle izan zaite, zure biotzean dagoan su garra guretan piztu ezazu eta emaiguzu, on ba'zaigu bederatziurren ontan eskatzen dizugun laguntza.

(*Uste osoa jarriaz eskatu orain nai dezuna*).

**Lenbiziko euneraako otoitza.**

Eskatzen dizugu Ama maite-maitea, gure biotza onbide ugariz bete dezagula, zuk nai dezun guzia bizitz ontan egiñaz, zurekin gero betikoan arkitu gaitezen. Eska-

tzen dizugu gañera eskuratu zaiguzula bederatziurren ontan eskatzen dizuguna.

Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita gure* ta gero.

### *Egun guzietarako azken-eskaria.*

Zugana gatoz, Errukidun Ama, eskatuaz, Eskapulayo santuan emanak dauden barkapenak irixteko eskeintzen dizkizugun bederatziurren ontako zazpi *Aita gure, Agur Mari ta Gloriak* ontzat artu ditzatzula. Alaxen.

Bigarren eguna.

Karmen'go Ama txit santua! Zure semeak bai asko maite izan dituzula! Baiegiegizkoak dirala Simon deunari zure alkartasunekoezagugaya ematean esan ziñizkiozun itzak: «Zure ta eramaten duen alkartasunaren eskerra erakusten du».

Maria deuna! Zer gauzoberik zuk eman dizuguna baño? Egizu gure okerragatik negar egin dezagula, zu maitatuaz urko la-

guna bide onera ekarridezagula, zure Eskapulayoak ematen digun onerako indarra azalduaz. Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure,* ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Irugarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Nere Ama! Nork neurtu litzazke zuk zure ontasunaz zure Eskapulayoa daramatenai ematen dieztezun ontasunak?

Zure maitasun onegatik eskatzen dizugu gutzaz erruki izan

dezazula, mundu ontako uzkeri ta arrokeriak alde batera utziaz, zuri bear dizugun maitasunaz maite izan zaitzagun.

Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure*, ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

Laugarren eguna.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Jainkoaren Ama ona, Zu ain ona zerala, gaizkeriz betetako gu guziok zuganontz goratzen gaituzuna!

Egizu, Ama ona, zure ontasun guziak

jarrai ditzagula ta ontasunezko zure bidietatik ibilliaz, zugana, betiko zorian iritxi gaitezela. Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure,* ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Bosgarren eguna.

---

*Kurutze santuaren...,.*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Jainkoaren Ama deuna, bai atsegingarria dala zuk egin diguzun beti laguntzeko eskeintza, zorigaizto guzietatik azkatuaz, ta zure indar aundiz babestuaz! Zoriontsuak amaika

bider zure semeak, zure laguntza baldin ba'dute!

Egizu, nere Ama, Jainkoaren eta zure laguntzan ibilli gaitezela, zuri beñere kalterik egin gabe.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure*, ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Seigarren eguna.

---

*Kurutze santuaren....*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Karmen'go Ama garbia, zure maitatzalleak zure seme bezela agertu zitezen Eskapulayoaz goratu zituzun Ama ona, be-

raren bidez mundu-ko gaitz-zorietatik aldendu gaitzatzu. Egizu ez dezagula beñere utzi, zirikaldietatik aldendu gaitzan, zu biotz biotzez maitatuaz. Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure,* ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

### Zazpigarren eguna.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Karmen'go Ama deuna, beartuen laguntzallea! Gure anima mundu galkor onetatik betikotasunera igarotzeko zure la-

guntz-billa dator. Gure eriotzako garayan lagundu gaitzatzu, gure anima zure eskuetan jarriaz zerura eraman gaitzatzun: Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure*, ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Zortzigarren eguna.

*Kurutze santuaren.....*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Karmen'go Ama ezin obea! Zure Eskapulayoa daramaten guziai zuk esan ziñiezun: "Bera soñean eramanaz iltzen dana, ez da betiko su-

garretetara joango"
¡Eskeintz maitagarria!

Ama maitea, gure pekatu guzien damua emaiguzu, ain laguntz aundia artzeko gai izan gaitezen.

Errezatu orain zazpi *Aita Gure*, ta gero 471'garren orrian dagon azkenerako otoitza.

## Bederatzigarren eguna.

---

*Kurutze santuaren.....*
*Eguneroko eskaria, 469'garren orrian.*

Karmen'go gure Ama! Zure maitasuna iristen da il ta gero ere zure Eskapulayoa daramaten guzien gain, Garbito-

kian dauden bitartean beren animak poztuaz eta ildako urrengo larunbatean beren billa joanaz betiko zoria emateko.

Gu zeruratzeko eman ziguzun Eskapulayoa: Eskeintzen dizugu, Ama ona, gere bizitz guzian eramatea, zure maitatzalle zintzo izanaz, zure bitartez bederatziurren ontan eskatu deguna zure Seme maiteak eman deigun. Alaxen.

Errezatu orain zazpi *Aita gure* ta gero 471'garren orrian dagon akenerako otoitza.

FUNDACION SANCHO EL SABIO · VITORIA ·

## BULDA SANTUAREN

*barkapenak irabazteko bost aldareen ikustaldia.*

---

1.ª Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

### Lenengo Aldarea.

Emen eskatuko da Elizaren bearren aldez.

**Gure Jainko ta errukizko Aita, aldare ontan goratzen ditugun santuen bitartez, biotzez eskatzen dizugu Jesukristo'ren ordañezkodan Erromako Aita santuaren aldez, bere asmo santuak iritxi ditzan: eta Apostoloen tokian dauden Gotzai ta a-**

paiz guzien aldez; sinismena gero ta geyago zabaldu dedin: sinismengabeen erakuste gaiztoak ezereztu ditezen: pekatariak onbiurtu, eta ònak onbidean iraun dezaten; eta agintari katolikoen artean pakea izan dedin. Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.*

2.ª Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

## Bigarren Aldarea.

Emen eskatuko da Euskal-Erriarren aldez.

**Gure Jainko eta errukizko Aita, aldare ontan goratzen ditugun Santuen bitartez, biotzez eskatzen dizugu, gure erri maitea len bezela arkitu dedin; bere oitura garbiak guziai pozez erakutsiaz, bere zuzentasuna nunai agertuaz, guzien biotzetan sinismenaren su gartsua zendo arkituaz. Ez gaitzatzula,**

¡arren! Jauna, zigorkatu gure pekatuak bear duten bezela; baizik, errukiz barkaturik, eman zayozu Euskal-Erriari pake eta zoriona. Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.*

---

3.ª Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

## Irugarren Aldarea.

Emen eskatuko da ongille ta gaizkilleen aldez.

Gure Jainko ta errukizko Aita: aldare ontan goratzen ditugun Santuen bitartez, biotzez eskatzen

dizugu lurreko eta zeruko ondasunez ordaindu ditzazula guri ongi nai diguten guziak; baita ainbeste laguntza guri egin izan dizkiguten guraso, aide ta adizkide guziak. Eta Jesus onak bere iltzalleai Gurutzegañetik barkatu zien bezela, gaizkilleai barkatubaz eskatzen dizugu biotz gogorrak bigundu eta ezaguera ta onbidean jarri ditezela. Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.*

4.ª Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

## Laugarren Aldarea.

Emen eskatuko da purgatorioko animen aldez.

Gure Jainko ta errukizko Aita: aldare ontan goratzen ditugun santuen bitartez, biotzez eskatzen dizugu, purgatorioko anima gaxoen aldez, baitez ere an arkitu ditezkean gure guraso, aide ta ongilleen aldez; gu bide izan giñalako an daudenen aldez; eta nork lagundurik ez duten anima bakar errukarri ayen

aldez. Jesus maitearen odol ederra bitartekodala, ¡arren! Jauna, atera itzatzu lenbailen anima gaxoak oñaze izugarri ayetatik, eta eman zayezu zeruan beti-betiko atseden eta zoriona. Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.*

---

5.ª Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

### Bosgarren Aldarea.

Emen eskatuko du nork bere bearren aldez.

Gure Jainko eta errukizko Aita: aldare

ontan goratzen ditugun santuen bitartez, biotzez eskatzen dizugu, zu goratzera etorri geranoi eman zaizkiguzula anima ta gorputzerako bear ditugun ontarte ta laguntzak; eta batez ere, ez dizaguzula ukatu gure griña gaiztoak ezi, ta birtutean aurreratzeko laguntza, eriotzako garaya baño len pekatuen zorra ordaindu dezagun; zure gogo santua egiteko poz eta indarra ta gure eginkizun guziak betetzeko osa-

suna ta pakea. Eman zaizkiguzu gañera zeruko laguntzarekin batean lurreko ontasunak, zu lagundu ta zu gauza guzien gañean malkozko erbeste onetan maitatuaz, iritxi dezagun gero eriotz on ta santu baten ondoren zure arpegi ederra zeruan ikustea: aingeru ta santu guziakin antxe betikotasun guzian goratu zaitzagun. Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Glori bat,*

# Sakramentuan dagoen Jesukristo'ri

## IKUSTALDIAK.

Gure animaren gogoak Jesukristoren aurrean.

### LENBIZIKO IKUSTALDIA.

**Zure aurrean nago, Jauna, eskale bat bezela: zure ugaritasunetik zerbait ekatzu.**

*Aita gurea eta Agur Maria.*

### BIGARREN IKUSTALDIA.

**Zure aurrean nago, Jauna, gaizkille bat bere Epailearen aurr-**

ean bezela: nitzaz errruki zaite eta barkatu nazazu.

*Aita gurea eta Agur Maria.*

---

IRUGARREN IKUSTALDIA.

Zure aurrean nago, Jauna, morroi bat bere Nagusiaren aurrean bezela: zure gorputz eta odolezko gogozko janaria emaidazu eta baita ere gaizki egiñak estaltzeko zure maitasunezko jantzia.

*Aita gurea eta Agur Maria.*

---

LAUGARREN IKUSTALDIA.

Zure aurrean nago Jauna, lagun bat

beste lagun baten aurrean bezela: zure jainkozko maitetasunazlotu nazazu, betiko zugandik alde ez egin dezadan.

*Aita gurea eta agur Maria.*

---

BOSGARREN IKUSTALDIA.

Jauna, zure aurrean, seme bat bere aitaren aurrean bezela, nago: goiko zoria iristea ez ukatu, arren.

*Aita gurea eta Agur Maria.*

Sakramentuan dagoen Jesukristo'ri
ESKARIA.

---

Bakartasunean zauden nere Jainkoa, nik

nere biotzaren barren-barrenean zure itz-otza entzuten det; zu zauden toki ortara etortzea eskatzen didazu. Zuk, Jauna, osoro sendatu, argitu eta zintzotu nai-nazu. Zu zauden toki ortara ekarri nai nazu, munduko gauz gaiztoetatik alde-egin dezadan zugana alkartuaz. Ementxe nago, nere Jesus; zu goratzera natorkizu; zu maitatuaz zugana zauden bakartasunean bat egin nai nuke. Artu itzazu ezku-

tuan zauden Jainkoa, nere onenak; nere eskariak entzun itzatzu eta Zuganaño jaso nazu, nere biotzak su ta garrez beterik Zuri itz-egiñaz; egizu nere biotzaren gogo guziak zuganontz zuzendu ditezen eta bakartasun ixil ontan zuri entzunaz, zure onbide guziak betiko ikasi ditzan.

Iriki ezazu, nere Jesus, nere biotza, beragan sartu nadin eta zure ontasunak ikusiaz, nere biotzan ere zurien antzekoak sor-

tu ditezen. Ni okertu nai naun mundu galgarri au ixildu ezazu: bere berriketatara nere belarriak itxi itzazu eta egin nazu bere galdeetara mutu, bere arrokerietatara gogogabekota bere atsegin zoroetara gor.

Alaxen.

---

Gazteiz'ko (Vitori'ko) Gotzayak Ikustaldi au egiten duenari 50 eguneko barkapenak ematen dizka.



## ABENDU-ALDIAN EGUNERO

**Maria Birjiñari berrogei Agur Mari.**

---

Abendu-aldian, Jesus'en Jayotza oroituaz, egunero berrogei *Agur Mariaz,* Maria Birjiña agurtzen Bolonia'ko Katalina Santua ari zan. Ogei egunean beintzat berori egitea, geroztik zabaldua da. Egun bakoitzean, VII'garren Pio Aitak emandako *100 eguneko barkapena* irabazi liteke; ta egunero, ogei egunean beintzat berrogei Agur Mari oyek esanda, aitortu, Jauna artu, eta Aita Santuaren gogoetako Eliz batean otoitz egiñezkero, *barkapen osoa* irabazi leike. (Pius VII, 14 Novem. 1814).

Abendu-aldiko eguneroko be-

rrogei Agur Mari oyek Azaroaren 29'an esaten asitzea oitura da, eta Abenduaren 23'an bukatzen dira.

Onela esan dezaizkitzu:

*Kurutze santuaren.....*
*Nere Jesukristo Jauna...*

### Lenengo amarrekoan.

*Agur Maria.....*

**Gorestu dezagun Jaungoikoaren Amatzat autua izan ziñan garai ura.**

Amar aldiz au bera ezazu *Agur Mari* osoa esaten dezun bakoitzean.

### Bigarren amarrekoan.

*Agur Maria.....*

**Gorestu dezagun Jaungoikoaren Semea jayo zan garai ura.**

Amar aldiz au bera ezazu *Agur Mari* osoa esaten dezun bakoitzean.

*Irugarren amarrekoan.*

*Agur Maria.....*

**Gorestu dezagun Jesus aurra lenengo aldiz laztandu zenduan garai ura.**

Amar aldiz au bera ezazu *Agur Mari* osoa esaten dezun bakoitzean.

*Laugarren amarrekoan.*

*Agur Maria.....*

**Gorestu dezagun Jesus-Aurra lenengo aldiz eman ziozun bizikai garbi ura.**

Amar aldiz au bera ezazu *Agur Mari* osoa esaten dezun bakoitzean.

Ondoren egunero ezazu:

**Jesusen jayotza oroituaz, abendu-aldi ontan, Katalina Santuak bezela, Maria Birjiña agurtzen degulako Jaungoikoa goretsi dezagun.**

## Maria Birjiñari Eskaria.

Seme Jaungoiko Jesukristo'ren Ama maitea! Jesus Aurraren Ama zeranezkero, abendu aldi ontan esango ditugun[1] milla *Agur Mari*, eta beroyekin esango ditugun[1] beste ainbes-

(1) Azkeneko egunean itz oyen ordez ezazu: esan ditugun.

te agurren ordaingarritzat, gure pekatuen damu bizia, eta gure eriotzako garayan gure alde izan zaitezela iguzu. Orretarako Katalina Santuak bezela, biotz beroz esaten dizugu: Ea bada, gure bitartekoa, zure begi kupikorrak guganontz itzuli itzatzu. Eta besterri onen ondoren zure sabeleko Jesus erakutsi zaiguzu. Errukitsua! biotz biguña! Maria Birjin gozoa!

Orain Maria Birjiñaren letania esan dezaizkitzu, ta azkenik esazu:

**℣. Dignare me laudare te, Virgo sacrata.**

**℟. Da mihi virtuten contra hostes tuos.**

OREMUS.

Deus, qui de beatæ Mariæ Virginis utero Verbum tuum, Angelo nuntiante, carnem suscipere voluisti; præsta supplicibus tuis, ut qui vere eam Genitricem Dei credimus, ejus apud te intercessionibus adjuvemur.

Conscientias nostras, quæsumus Domine, visitando purifica, ut veniens Jesu Christus Filius tuus Dominus noster cum omnibus Santis, paratum tibi in nobis inveniat mansionem. Qui tecum vivit, et regnat in sæcula sæculorum. ℞. Amen.

## Jesus'en Biotzari eskeintz-aldia.



Jesus'en Biotz ona! Zure aurrean auzpezturik gure eskeñia ostera berritzen degu, eta gizonen bidegabekeriak zuganako maitetasun geyagoz ordaintzea erabaki degu.

Bai, ene Jesus, gure itza ematen dizugu:

—Zure etsayak zure kaltean alegintzen diran ainbat gu ere zure aldez alegindugo gerala.

—Guri zeruko uste izatea kendu nai diguten ainbat, guk ere gure uste osoa zure biotzagan eukiko degula,

—Biotz eskergabeak zure itzak jarraitzeko uzkurrak ba daude, gu are geyago alegindu ko gerala zu maitatzeko.

—Zure Jainkotasunari gogorki erasoten ba'diote, guk len baño geyago oraindik maitatuko zaitugula.

—Zure agindu onak oinperatuak baldin badira, guk orduan geyago beteko ditugula.

—Zure onbide ta asmo onak utziak ba' dira, guk gure gain jarriaz berak jarraitzen alegin duko gerala.

—Etsayak bere lan aundiak egiten ba'ditu al dituan geyenak bere aldera eramaten, guk ere gure alegiñak egingo ditugula zure aldera eramateko.

O Jesus gure Jainkoaren biotza! laguntz aundi eta indartsu bat egizu emen lurrean zure jarraile izanik gero betiko zoriontasuna zure aldamenean arki dezagun.

## Salomon jakintsuaren esaerak.

1. Gazteak aurtzaroan artzen duen bidetik jarraituko du sartzaroan ere.

2. Jainkoaren bildurra da Jakintzaren asiera.

3. Jakintza pitxi eta gauz eder guziak baño obeagoa da eta opa litezkean gauzetan ez dago ezer berari berdintzekorik.

4. Seme jakintsua da aitaren atsegiña: ez jakiña amaren atsekabea dan bezela.

5. Ez du ongi nai

bere semea kastigua urritzen dionak: maite duenak ordea, maiz zigortzen du.

6. Ikasi-zale izan zaite; ez ori beñere utzi zure bizitza dalako.

7. Erakusbide latza maite duenak maite du jakintza, bañan bere okerrak zuzentzea nai ez duena burugabea da.

8. Bere zuzenbideetatik dabillen gizona ongi ikusia izango da; bañan arroa eta burugabea gaizki begiratua izango da.

9. Goiko zoria izango da jakintsuen irabazpena, bañan ezjakiñai lotsagarrian biurtuko zaye beren jasoera.

10. Ikasbidea ezertzaz artzen duenak, ezeretzaz artzen du bere anima, bañan besteren ongi esanetara jartzen danak bere griña gaiztoak menderatzen ditu.

11. Besteren ongi-esana ontzat artzen duena bizitzako bidetik dijoa, baña artzaz jaramonik egiten ez duena, bide galdutik

dabil.

12. Ikasi nai ez dutenak beren ezjakiñean ilko dira.

13. Seme ezaguera gabea aitaren naigabe da.

14. Nagikeriak loa erakartzen du eta anima alperrak gosea igaroko du.

15. Gizon pizkor ta argiaren asmoak beti ekartzen dute ugaritasuna; bañan alper guziak beti ezeukitasunean bizi dira.

16. Atsegiñezko gizalegea duena señidea baño ere obeto

artuagoa izango da.

17. Bere burua aunditzat daukana ezjakin aundi bat da; onela izanaz erokeri askoegingodituala ko

18. Izen onak ondasun asko izateak baño geyago lagundukodigu; gizonak gu ontzat eukitzea urre-zillarrak baño maitagarrigoa da.

19. Errukitsu dana Jainkoaz maitatua izango da, bere ogia beartsuai ematen dielako.

20. Gaiztoen bideetara etzaitezela zale-

tu eta bide oker oyetatik alde egizu.

21. Gaizkeriko bidea inpernuko bidea da, zorigaiztoko eriotzan bukatzen dan bidea.

22. Bide okerretik baldin ba'zuaz azkenean negar egin bearrean arkituko zera, eta gero esan bearko dezu:

23. Zergatik gorrotatu nuen erakusbide latza eta zergatik nere biotza besteren ongi-esanetara etzan makurtu, gastigatzen nindutenen itzik eta nere irakaslien ikasbiderik ez en entzun nayaz?

AURGINTZAN DAUDEN EMAKUME,

ETA EMAKUME AGOR, ANTZU EDO AURRIK EZ

DUTENEN LAGUNTZALLE BEREZKO

ETA SANTU GUZIZ MAITAGARRI

# Erramon santu jayogabearen

## BEDERATZIURRENA.

VITORIA

---

Negarrezko ibar ontan arkitzen geranok, bai aberats ta bai beartsu, bai aundi ta bai txikiak ere nekez ta naigabez beteak gaude eta beragatik Goiko Jaunaren laguntzaren bear gera: *Eska zazute eta izango dezute, billa zazute eta arkituko dezute* Jainkoak berak eskañia dauka eta artantxen alegindu bear gera. Bañan ba-

tzuek Jainkoagandik ez dute ezer artzen eskatzen ez diotelako; besteak, eskatuarren, ez dute ezer irixten eskatzen ez dakitelako edo gaiski eskatzen dutelako. *Ez dezute artzen,* Jaunak dio, *gaizki eskatzen dezutelako.* Batzuek uts-egiten dute eskatzen duten gauzan eta besteak eskatzeko eran.

Gure Jainkoari eskatu bear zaizka beti gauz onak eta oyen artean lenbizi dagoana da noski, gu zeruratzea; baña lurreko gauzak, bizitza, osasuna, ondasunak eta gaitzetatik sendatzea eskatu bear zaizka esanaz ondoren: *zure zorion geyagorako ta nere onerako baldin bada.*

Santu guziak Jainkoare-

kiko asko dezaketen bitartekoak dira, Jainkoak bere santu guziak asko maite ditualako. Santu oyetako bat, ondo arrigarria bera, izan da Erramon santu jayogabea. Bere ama iru egunez aurretik ildakoaren sayetsetik, sayets au santuaren osaba Kardona'ko Bizkondeak ildakoari burniaz irikita, atera zuten, eta bere iltzeko garayan Goiko Jauna bera etorri zitzayon bere eskuz santuari Jauna ematera; eta bere bizitzaren asiera ta azkena ain arrigarriak izan ba-ziran, bere biziera guzia ere ezin ederragoa izan zan.

Santu maitagarri onen bederatziurrena ondoren arkituko dezu ba, eta uste osoa izan dezazuke bere bitartez

ezkatzen dezuna, zure onerako baldin bada, Goiko Jaunak pozik emango dizula.

Bederatziurren au egiteratzen danak Erramon santuaren irudi baten aurrean belaunikatuaz bere biotza Jainkoagana jaso eta bere gogo, itz eta egipen guziak berari eskañiaz asiko da onela esanaz:

### Egunerorako otoitza.

Erramon santu zoriontsua! Biotz-biotzez poztutzen naiz Jainkoak zu ain santu aundia egin izana. Eta zuk gero Jainkoaren aldez eraman izan ziñituan oñaze ikaragarrikatik eskatzen dizut Goiko Jaun berari eskatu zatzaikiola sinismen deunaren sabaltzea guziok bera maite dezagun.

Baita ere eskatzen dizut

zure amaren barrenen ilda gero ordu asko egon ziñan bezela, nere anima ere gorputzean itxian egon ondoren atera dedilla gero gure Jainkoa betikotasunean goratzeko; eta au obeto irixteko eskuratu zaidazu orain zuri eskatzera nijoakizun laguntza,

(Emen eskatuko da bakoitzak iritxi nai duan laguntza, eta gero esango du):

Onela uste det egingo dezula, diotenez, zuk eskatzen dezun guzia iristen dezulako. Bañan nere onerako ba' litzake laguntz ori ez iristea, emaidazu, bederik, ortarako bear detan eramankizuna, gero azkenik zorioneko eriotz bat izan ondoren betiko zorionak izan ditzagun.

Amen.

## Lenbiziko eguna.

Guzia dezazukean Jaun eta Jainkoa, Erramon santu jayogabeari egin ziñizkiozun laguntzakatik eskerrak ematen dizkitzut; ta beraren ontasunakatik eskatzen dizut zu santu aren aldez ain esku zabala izan ziñan ainbat nere aldez ere izateko bederatziurren ontan eskatzen dizudana neri emanaz geyago maitatu zaitzadan. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

## Bigarren eguna.

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Nere Jesus ona, nere Erosle ta Jauna, nik ematen dizkitzut eskerrak Erramun

santu jayogabeari eman zizkiotzun laguntzakatik. Zure maitatzalle zintzo orren gain zuk egin ziñitun gauz arrigarriak ematen ditet bide, nere Jainkoa, bere bitartez eta bere ontasunez nere eskabide au zure izen aundiagora bete dezazun; Zugan uste det, nere Jesus ona, Santu onen bitartez zuregana agertu dienai lagundu diezun bezela neri ere lagunduko didazula. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

## Irugarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Atsekabetutako guzien Ama errukitsua! Ain aundia dan Amagana seme argal bat bezela nator eskerr-

ak ematera Erramon Santu jayogabeari eman zizkiozun laguntz aundiagatik beren bidez nik ere bederatziurr-en ontan eskatzen dizudana iristeko.

Uste det ba, Santu oni ezer ukatu etziozun bezela, bere bitartekotasuna zure Semearengana ez diozula ukatuko, nik eskatutakoa eman zaitzadan zure zorion geyagorako, zure semearene-rako ta nere onerako.

Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure*, *Agur Mari* ta *Gloria Patri*.

## Laugarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Nere Jaun eta Jainkoa, nik eskeintzen dizkitzut Erramon Santu jayogabearen

ontasun aundiak eta eskatzen dizut beren bidez onbiderik aundienak neri ematea, zure agindu guziak beteaz eta nere guraso ta gañekoen agindutakoak egiñaz; eskatzen dizut, batez ere, bederatziurren ontan eskatzen dizudana iristea.

Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari* ta *Gloria Patri.*

## Bosgarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Nere Jaun ta Jabe maitea, zure seme argal bat izanarren, zure aurrean belaunikatzen naiz eta gogoratzen dizut Erramon Santu zorionitsuak eraman izan zuan bizitz beartsua eta biotz-biotzez eskatzen dizut bere bizitzaz

zurekiko irabazi izan zituan irabazpenakatik garbitu dezazula nere biotz gaizto au, egitazko beartsutasuna nere gogo edo animara bialduaz munduko gaiztakeri guzietatik aldenduaz zure maitetasunari alkartua egon nadin. Eta batez ere emaidazu bederatziurren ontan eskatzen dizudan laguntza zure izen ta zorion aundigorako baldin ba'da. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari* ta *Gloria Patri.*

## Seigarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Nere Jaun ta Jainko maitea, ain garbitasunaren zalea agertu zeranezkero, zure Semea aragiz jantzia Ama Birjiña garbi-garbi bategan-

dik jayo izana egiteraño, nik eskatzen dizut, Jauna, Erramon Santu jayogabearen garbitasuna. Eta santu onen garbitasunak berari eman zizkan ontasunakatik eskatzen dizut nere gogo edo animako kutsu guztiak garbitzea Jesukristo gure Jaunari bat-egiteko gai izan dedin eta bederatziurren ontan eskatutako laguntza iritxi dezan. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

## Zazpigarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Nere Jaun ta Jabea, Zuk bakarrik dakizu Erramon santuak izan zizun maitetasunaren gar bizia eta berak maite zizun bezela nai izan

zuen beste guziak ere zu maite izatea. Nik, gaur, eskatzen dizut bada, Erramon santuaren biotzaren izenez, zure maitasunezko garrez nere biotza goritu dezazula eta santu aundi onen irabazpenakatik eman egidazula bederatziurren ontan eskatzen dizuten laguntza. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

## Zortzigarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Nere Jainko ta Jauna, nik nezaken apaltasun aundienaz laguntz bat zuri eskatzera natorkizu Erramon santu jayogabearen irabazpenen izenez: bere ontasunak zirala bide eskatzen zi-

zun guzia eskuratzen zuen; santu onen apaltasun ta ixiltasun ori bera eskeintzen dizut nere burua makurtuaz arrokeri guziak alde batera utzi ditzan. Eta gañera eskatzen dizut, zure zorionerako ta nere onerako, eman egidazula eskatu dizudan laguntza. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari* ta *Gloria Patri.*

## Bederatzigarren eguna.

---

*Egunerorako otoitza, 514'garren orrian.*

Guzia dezazukean eta betikoa zeran Jaun ta Jainkoa: gaur da bederatziurren onen askenengo eguna eta oraindaño bear bezela ez baneukan ortarako nere biotza egizu gaûr bederik ongi arki dedilla nai nuken lagun-

tza iritxi dezadan; eta, nere Jauna, au egin dezazun aurrean ipintzen dizkizut Erramon santuak eraman izan zituan naigabe, lan, zigorkada, masalleko ta beste atsekabe guztiak. Eta aundiak izan ba'ziran aundiak izan ziran ere bere irabazpenak. Eta onela beren bidez, Jauna egizu zuregatik atsekabeak artzeko gogo sendoa izan dezan eta baita ere bederatziurren ontan eskatutako laguntza iritxi dezadan. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari* ta *Gloria Patri.*

---

# ARKIBIDEA


| | Orria. |
|---|---|
| Goizerako otoitza . . . . . . | 7 |
| Gaberako otoitza . . . . . . | 15 |
| Pekatuak ondo aitoŕtzeko . . | 18 |
| Otoitza . . . . . . . . . . | 20 |
| Ama Birjiñari ta Santuai otoitza . | 22 |
| Pekatuen gogoratzea . . . . | 24 |
| Lenengo agindua . . . . . . | 26 |
| Bigaŕen agindua . . . . . . . | 31 |
| Irugaŕen agindua . . . . . . | 35 |
| Laugaŕen agindua . . . . . . | 38 |
| Bosgaŕen agindua . . . . . . | 42 |
| Seigaŕen eta bederatzigaŕen agin- duetan . . . . . . . . . | 44 |
| Zazpigaŕen eta amargaren agin- duetan . . . . . . . . . | 50 |
| Zortzigaŕen agindua. . . . . | 54 |
| Pekatuen gogoratze-ondorengo Otoitza . . . . . . . . | 58 |
| Barkapena eskatzeko Otoitza. | 60 |
| Aitoŕtu auŕeko damu-egintza . | 65 |
| Aitoŕtze-auŕerako iru gogorapen | 72 |
| Aitoŕpena ondo egin ta gero esa- zu otoitza . . . . . . . . | 87 |
| Ondo Jauna aŕtutzeko-jarduera . | 89 |
| Gogorapena . . . . . . . . | 91 |
| Otoitza . . . . . . . . . . | 92 |
| Jauna aŕtzean . . . . . . . | 97 |
| Otoitza . . . . . . . . . . | 98 |

Orria.

Eskaria. . . . . . . . . . . 101
Otoitza . . . . . . . . . . . 104
Anima Christi. Ignazio Aita Deunak beti esan zuan Otoitza. . 107
Ama Birjiñari ta Santuai otoitza. 110
Teresa Deunaren gaztiguak . . 114
Meza Deuna zer dan . . . . 115
Emen ipintzen det Espiritu Santuak Trento'ko Biľaldian erakutsi zuan ikasbidea. . . . 121
Mezako Misteriyoaren ikasbidea 123
Mezaren asiera . . . . . . . 128
Meza Santuaren ondorengo otoitza . . . . . . . . . . 176
Besperak . . . . . . . . . 179
Lenengo salmorako jarduera . 182
Bigaŕen salmorako jarduera . . 186
Irugaŕen » » . . 189
Laugaŕen » » . . 193
Bosgaŕen » » . . 196
Imnorako jarduera . » . . 200
Magnifikat'erako. . . . . . . 203
Kalbario'ko gurutze-bidea . . . 210
Jesukristo'ren bost zaurien Jarduera. . . . . . . . . . 267
Bost zauriyai Franzizko santuak egunero egiten zien otoitza. 272
Ama Birjiñaren Eŕosario Santua beaŕ dan bezela esateko bidea 274
Astelen-Ostegunetarako Misterio Atsegintsuak . . . . . . . 276

Orria.

Misteriyo Oñazetsuak . . . 293
» Zoriontsuak. . . . 307
Ama Birjiñaren Letania Euskeraz 322
Jose Santu Zoriontsuari Eskaera 327
Padua'ko Antonio Santuaganako jarduera. . . . . . . . . 328
Jesus'en biotzari bere azken-arnasetan eskaera . . . . . . . 336
Jesus'ek bere biotzaren zaleai egin dizkien aginduak . . . 337
Eriak sendatzen danean egingo duen otoitza . . . . . . . 342
Trinidade Santuari Trisajioa. . 345
Trisajioa eŕezetan dan guztian barkapenak irabazteko eskeintza 357
Damu-egintza. . . . . . . . 359
Aitari otoitza . . . . . . . . 361
Semeari otoitza . . . . . . . 364
Espiritu Santuari otoitza . . 365
Abestitxoa. . . . . . . . . . 367
Otoitza. . . . . . . . . . 368
Mariya guztiz Santuaren miñen zazpiuŕena . . . . . . . . 369
Jose Santuaren miñ eta pozen zazpiuŕena . . . . . . . . 379
Uŕiko iḻan Eŕosario santu ondoren XIII'gaŕen Leon Aita Santuak Jose Santuari egiteko agindu zuen otoitza . . . . 389
Barbara Santuari otoitza . . . 392
Ignazio Santuaren lau gaztiguak 393

Pág.

Ilaren egun bakoitzerako itz oroigafiak. . . . . . . . . 394
Inpernuko ofo edo kondenatuen deadafak . . . . . . . . 403
Etsayen pekatua dan birauak uzteko bideak. . . . . . . . 405
Kain gofototsuaren oyuak. . . 407
Iguiña edo gofotoa sendatzeko bideak. . . . . . . . . 408
Loikerizalearen oyuak . . . . 411
Loikeria sendatzeko bideak . . 413
Lapur gaiztoaren oyuak . . . . 415
Lapuferia sendatzeko bideak. . 417
Judas gaiztoaren oyuak. . . . 420
Vicente Ferrer Santua: eriotza on bat iristeko otoitza . . . 422
Biotz-otoitza . . . . . . . . 426
Padua'tar Antonio Santu zoriontsuaren bederatziufena. . . 432
Efoke Santu zoriontsuaren bederatziufena . . . . . . . 444
Karmen'go Ama Birjiñari bederatziufena . . . . . . . . 469
Bost aldareen ikustaldiak. . . 481
Jesukristo'ri ikustaldiak. . . . 490
Abendu aldian egunero Maria Birjiñari befogei Agur Mari . 496
Jesus'en Biotzari eskeintz-aldia. 502
Salomon jakintsuaren esaerak . 505
Efamon santu jayogabearen bederatziufena . . . . . . . 511